



Herri batzordeek eman zioten azken bultzada EGUNKARIARI /8-9



Hastapen zaila, 1988ko Ajuria Eneko Itunaren ondorio /12-13



EGUNKARIAREN hastapenak, langileen ahotik kontatuak /11

KULTURA

Egileek diote

EGUNKARIAN pisu handia izan zuen kulturak: 25 urteren ostean, euskarazko egunkariak euskal kulturagintzari egindako ekarpenaz hitz egin dute aktore, zinemagile, bertsolari, musikari, idazle eta artista zenbaitek. /20-21

EUSKALDUNON Egunkaria

Igandea, 2015eko abenduaren 6a / XXV. urtea / 7.733 zenbakia

Euskara idatzi estandarrari ekarritakoa

25 urteotan EUSKALDUNON EGUNKARIAK —eta gero BERRIAK— bizia eman dio euskarari, eta atek ireki dizkio lehen tokirik ez zuen eremuetan bidea egiteko. Erreferentzia urritasunagatik, asmatu ere egin behar izan ditu terminoak, eta finkatu irizpideak. /22-23

Historia zatiak iruditara ekarrita

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN azalen bidez labor daiteke azken 25 urteotako historia. Denentzako lekurik ez dagoenez, EGUNKARIAREN beraren eta Euskal Herriaren historia labor dezaketzen zenbait azal aukeratu ditugu, atzera begirako gisa. /26-27

Aurrerantzean ere jarraitzeko, berritzea lege

Denborak aurrera egin ahala, baliabide berriak garatzen dira, eta horiei esker alda daitezke lan egiteko moldeak edo diseinu kontuak. Baita kazetaritzan ere. Baliabideak eskuratu eta berritu behar diren lekuko da BERRIA berria, eduki berri horietan. /29

25 urte bete dira gaur EGUNKARIA jaio zenetik

1990eko abenduaren 6an argitaratu zen EUSKALDUNON EGUNKARIAREN lehen zenbakia, Durangoko Azokak atek 25. aldiz ireki zituen egun berean

Ostegun batez sortu zen EUSKALDUNON EGUNKARIA. 1980ko hamarkada zeharkatu zuten euskara hutsezko egunkariaren inguruko hainbat eztabaidak: publiko edo pribatua izan behar ote

zuen; egunkari bat, bi edo hiru behar ote ziren, eta abar. *Argia* aldizkariarekin hauspotu eta azaleratu zuten euskara hutsezko egunkari nazionalaren beharra urte horietan guztietan.

Aldarrikapenak alde batera utzi eta egunkaria egin egingo zutela erabaki bezain pronto, kulturagintzara jo zuten, halako proiektu bat sortzeko beharrezkoa zen babes eta bultzada bila.

Urtebete eskasean egin zituzten lan guztiak, 1989aren hondarretik 1990eko abenduaren 6ra bitartean: Durangoko 25. Azokan aterata zen argitara EUSKALDUNON EGUNKARIA. /6-7



EUSKALDUNON EGUNKARIAREN lehen zenbakia, kioskoan, 1990eko abenduaren 6an, gainontzeko kazeten artean salgai.

Kafesnea, euskaraz mesedez

BIZITZA aldatu zidan EUSKALDUNON EGUNKARIA delako berripaper zahar hark, beste hainbati legez seguruenik. Esan ohi da segundo bakoitzak aldatzen duela aurrekoa, eta hala da, hala denez. Zerbait berri jaio zen gure komunitatean, euskararen tribuaren baitan; eta geratzeko etorri zen. Egunkari hark atzean, oso atzean utzi zituen prentsa bako egunak, hilabeteak eta urteak.



Indar-transformazio batetik heldu zen egunerokoa; ez zen sortu hutsetik edo ezezetetik, ez baitzen magiarik izan orduko hartan: kazetari eta idazle euskaldunak baziren, aldizkariak-eta bagenituen gure

artein, irakurleak zain zeuden kioskoari begira, diruak berak ere onartu zuen gonbita... Hemendik eta handik bultzatuta, gorpuztu egin zen ametsa, eta

LINDAR-TRANSFORMAZIO BATETIK HELDU ZEN EGUNEROKOA; EZ ZEN SORTU HUTSETIK EDO EZEREZETIK, EZ BAITZEN MAGIARIK IZAN ORDUKO HARTAN

hogeita hamaseiko estatu-kolpearen osteko gerrak isilarazi zuen *Eguna* mitiko hura —Fenix euskalduna— mamitu egin zen gure artean, indar eta helburu berriztatuekin.

Ozenbakia deitutakoan, kazeta modu ofizialean kaleratu aurreko proba moduko zenbakian lan egiteko aukera izan nuen: *Argia*-koekin, *Jakin*-ekoekin, *Anaitasuna*-koekin, irratietako eta telebistako lagunekin, kazetaritza-fakultatek ateratako berriemaileen labealdi beroekin batera... Hura dardara: denona, eta nirea ez txikiena.

«Emen gara» idatzi zuen *Eguna* zaharrak lehen zenbakian, 1937ko urtarril jaioberrian, lubakiak odolez tindaturik zeudela; eta, berrogeita hamar urte luzeren buruan, han ginen gu denok, leku-

koa hartu guran. Hura ezinegon. Hura zain piztu berriaren borborra.

Informazioa eta plazera uztartu zituen EUSKALDUNON EGUNKARIA deitutako paper zikin hark gure etxean, armosua eta albiste idatzi berriak mahai bera lehendabizikoz elkartu zirenean. Libreago eta osoago sentiarazi gintuen.

Euri eta elur, afrontu eta sargori... eguneroko hura prezintatu eta kendu egin ziguten. Gauzak asko aldatu ziren ondoren. Baina, bizitza halakoxea da: segundo bakoitzak aurrekoa zahartzen du.

Minak min... 2015eko goizetan, kafesneari laguntzeko, zer hobea goa BERRIA baino?

JOSE INAZIO BASTERRETXEAA
EHU-KO IRAKASLEA

ZAKILIXUT

© Olariagaq



Laranja kutxa eta determinazioa

ORAIN 30 urte, 1980. urtearen bueltan alegia, pil-pilean zegoen euskarazko prentsaren afera. Euskalgintzak ordurako lortua zuen ikastolak egonkortzea (20 urteko ibilbidea bazuten), helduen euskalduntzea eta alfabetatzea hedatzea (AEK 1976an sortu zen), eta hiru aldizkari indartsu zeuden: *Jakin* (1977an berriindartuta), *Argia* (1980an berriztua) eta *Anaitasuna* (1981ean hartu genuenok, 1982an integratu ginen *Argia*-n).



Une hartan bi lehentasun nagusi zituen euskalgintzak: euskal unibertsitatea eta euskarazko prentsa idatzia. Gabezia mingarria suertatzen zen.

1986an elebidunak ziren *Egin* eta *Deia* egunkariak erabaki zuten ateratzea aste-

an behingo egunkari euskaradunak, *Hemen* eta *Eguna*, hurrenez hurren. Baina iraupen gutxiako proiektuak izan ziren. Eusko Jaurlaritzak ere tentazioa sentitu zuen euskarazko egunkari publikoak eta bakarra ateratzeko, baina ideiak ez zuten

ZIRT ALA ZART EGIN BEHARRAZ OHARTUTA, BIZPAHIRU EGUNEKO GOGOETA EGITERA JOAN GINEN ARANTZAZURA; ORDU ASKOKO BILEREK EZ ZUTEN FRUITURIK EMATEN

aurrera egin, zorionez. 1990ean, azkenean, EUSKALDUNON EGUNKARIAK argia ikusi zuen, *Argia* aldizkariaren ekimenez.

Memoria subjektiboa da, eta beti ez da fidela, baliteke. Baina memorian dudak pasarte hau ez dut ahaztu 27 edo 28 urte hauetan.

Argia-n genbiltzanok —Gipuzkoako kideek batez ere— gora eta behera genbiltzan euskarazko egunkaria atera nahiaz eta ezinaz.

Azkenean, zirt ala zart egin beharraz ohartuta, bizpahiru eguneko gogoeta egitera joan ginen Arantzazura, Donostiako erredakzioko guztiak eta Bilboko bat edo bi. Ordu askotako bilerek ez zuten fruiturik ematen. Bidegarritasun txostena gora eta aurrekontuak behera, azken egunean behera jota geunden. Ordu gutxi falta ziren etxera joateko eta oraindik ez genuen hartu erabakirik. Halako batean, Joxemi Zumalabe joan zen

bilera-gelatik. Zirkulu handi batean geunden jarrita aulkietan, burumakur. Handik tarte batera Joxemi agertu zen laranja kutxa handiaz eta zirkuluaren erdian jarri zuen. Jaten hasi ginen, isilik. Ezustean Joxemik esan zuen, ia ahapeka, «bueno, zer, egin egingo diagu, ezta?». Eta denak, «bai, egingo diagu».

Akta egitea egokitu zitzaidan eta ez nekien nola demontre jaso gela hartan jazo zena. Euskara hutsezko egunkaria ateratzea erabaki genuen eta aktan ezin nuen bildu argumentu bakar bat ere. Laranja eta Joxemiren determinazioa. Nola jaso hura.

Motxilak egin eta poz-pez abiatu ginen etxera, ondo jakin gabe zergatik geunden pozik. Askoz beranduago konturatu nintzen apustuak eman zigula poza, poza eta kemena.

LAURA MINTEGI
IDAZLEA ETA IRAKASLEA

Mezua eta mezularia

MEZUA. 25 urte egunez egun, tantaz tanta, *Euskal Herri nazioan* murgildu gaitu EGUNKARIAK, BERRIAK. Komunikazio zerbitzu honen erabiltzaileari gelditzen zaion ideia nagusia *nazioarena* da.



Ez da jokalekurik errazena interesa sortzeko. Hurbilekoena izan ohi da erakargarriena. Etxe ondokoak kuriositatea pizten du. Horregatik medio lokalek, tokiak, tokikoek duten abantaila. Nork bere herrikoa izaten du ja-

kingai, askotan huskeria izan aren. Axaleko kontuak nahi bada, txokokeriak, tribialitateak, baina gertu-gertukoak. Interesgarriena ez baita garrantzizkoena. Nazioarena urrunxkoago gelditzen da, abstraktuago, transzedentalago. Garran-

tzitsua, baina erakarmen gutxiagokoa. Nazioaren esparruan jokatzeko du euskarazko prentsak. Tokitasunaren konplementaritatea nahi eta ezinaren tartean galtzen da. Saiatzen jarraitu behar da.

Naziogintza garrantzizkoa da, Euskal Herria naziotzat duenarentzat. Horregatik egungo antolaketa politiko administratiboen gainetik nazioa garelako balioa aitortu beharko dio euskarazko prentsa idatziari, naziogintzan, aberrigintzan nahiago bada, egiten duen ekarpenagatik.

Modu berean, naziogintzan ari den guztiak eroso sentitu ahal eta behar luke euskarazko prentsan.

MEZULARIA. Egunez egun, euskaraz, EUSKALDUNON EGUNKARIAK ia 3.800 zenbaki atera zituen. Ez zioten horrenbestearaino iristen utzi. Egunkari

berriak gainditu du 3.800ekoa. Produktzio ugaria.

Euskarazko letretan hainbesteko kopurua sortu duen besterik ba al da?

Zenbatekoen gainetik dago, hala ere, kalitatea: komunikazio tresna zehatza, ulergarria, funtzionala, doituia bihurtuta

EGUNGO ANTOLAKETA
POLITIKO-ADMINISTRATIBOEN
GAINETIK NAZIOA GARELA
DIOENAK BALIOA AITORTU
BEHARKO DIO EUSKARAZKO
PRENTSA IDATZIARI

dago euskara. Hori lorpen handia da. Badakigu munduaren berri euskaraz ematen. Azken urteotan prosa periodistikoak izan duen aurrerabidea oso nabarmen-tzekoa da. Ez da ziurrenik EGUNKARIAK eta BERRIAK esklusiban ekarritakoa, baina hein handi batean berari zor zaio.

Eta bada gehigarri bat: beste hedabide-etako komunikatzaileentzat erreferentzia lagungarria gertatzen da egunkari honetan landu den hizkera eredu. Irratian edo telebistan esandakoak, bota ahala, haizeak eramaten ditu. Hemen ez, hortxe ditugu iraukora, finko. Egunerokoa eta idatzizkoa izatetik datorkio balio gehigarri hori. Hedabide baten lana besteren probetxuzkoa gertatzen da, eta gizartearen oihartzun zabala du ondoren. Eragin biderkatzailea esaten zaio horri.

MIKEL BUJANDA
KAZETARIA

Topa egin nuenekoa

HERNANIKO Zinkoeneko kioskoa goizaldean irekitzen zuten duela 25 urte. Orain ere hala izango da, baina ezin dut ziurtatu, makina bat urte baitira goizero joateari utzi nionetik. Garai horretan, ordea, ber-



tan hasten zen eguneroko errutina, oso goiz, hantxe hartzen baikenituen irratirako bidean eguneko lehen albistegirako behar genituen egunkariak. Fauna berezia elkar-tzen ginen han. Paper-lantegietara zihoazen

kamiolariekin egiten nuen topo ondoko tabernan; neuk eguneko lehen kafea hartzen nuen goiza deitzea merezi ez zuten ordu txikietan, eta berriak auskalo zenbatgarrena.

Duela 25 urteko abenduaren 6an jende desberdina agertu zen taberna-zuloan, kioskoa ireki zain. EUSKALDUNON EGUNKARIA idatzi eta maketatu berri zuten kazetari, diseinatzaile eta ekintzaileak, gehienak lehendik ezagutzen nituenak. Egun hartako kafea gozoagoa izan zen, orduan hartu bainuen lehen aldiz EUSKALDUNON EGUNKARIA. Zikindu egiten zuten, errotatibatik atera berria baitzen; hatz-puntak belztuta topa egin genuen kafe-kikararekin.

Ez da une horretako argazkirik geratu. Orduan gutxi axola izango zigun unean unekoak lau haizeetara zabalzteak; ez genuen ez ohiturarik ezta modurik ere une guztien berri etengabe zabalteko. Oso bestelakoa zatekeen une hori gaur jazo izan balitz. Sakelako telefonoekin arte-



EUSKALDUNON EGUNKARIAKO langile batzuk, lehen zenbakia eskuetan dutela. EGUNKARIA

lan traketsak egingo genituen, lehen EGUNKARIA hura izkinetatik erakutsiz, adibidez. Eta Twitterren txiokatuko genuen munduak jakin zezan. Eta zuzeneko kontakizuna egingo genuen webgunearen bidez, futbol-partidak irratian ematen

ziren tonu epiko eta absurdo samarrarekin. Duela 25 urte, ordea, EGUNKARIAK errotatibatik ateratzen ziren, eta kioskoan erosten ziren eguneko ordu txikietan, eta hatzak zikindu egiten zituzten, eta usnatzera, tinta usain gogoangar-

ri hori zuten, tailerra iradokitzen zuena, laborategi aseptikoa baino.

Mende-laurdena igaro eta gero kazetaritza aldatu egin da errotik, eta ez da mudatu den gauza bakarra. Zinkoeneko kioskoan bat egiten genuen faunatik

ZIKINDU EGITEN ZUEN
LEHEN 'EGUNKARIA'-K,
ERROTATIBATIK ATERA
BERRIA BAITZEN;
HATZ-PUNTAK BELZTUTA
TOPA EGIN GENUEN
KAFE KIKARAREKIN

gehienok desagertu gara inguru horietatik. EUSKALDUNON EGUNKARIA hura erraie-tatik atera zuten errotatiba itxita dago, eta baita kioskoko egunkariak erabiltzen zuten irratia hura eta paper-lantegiak ere. EUSKALDUNON EGUNKARIA ere falta da, falta zait, falta zaigu. BERRIA dugu, baina ez hura, ez hatz-puntak zikindu zizkidan hura.

Herri honek gauza harrigarriak egiten ditu: zerotik egunkari bat sor dezake, behin edo birritan, behar den guztietan. Eta hori bezain harrigarria dena: ez du ahazten.

PILAR KALZADA
KAZETARIA

Goizeroko makarrak

ETXEPAREK lehen euskal liburua plazaratu eta zehazki ehun urte geroago, 1645ean hain zuzen, suediarrek lehendabiziko egunkaria plazaratu zuten. Orduetik ehunka egunkari etorri zen hainbat hizkuntzatan. Euskaldunok, ordea, ia hirurehun urte behar izan genituen euskaraz idatzitako lehen egunkaria, *Eguma*, plazara ialgi eta plazan ikusteko. Sei hilabete doi iraun zuen (1937ko urtarriletik ekainera): Espainiako gerraren erdian sortua,



Espainiako gerrak itxi zuen. Hurrengo ahaleginak, EUSKALDUNON EGUNKARIAK, 1990ean ikusi zuen lehen argia, eta hamahiru urte doi egin zituen egunero-egu-

neroko plazan: guardia zibilek itxi zutenean —armaz hartu zutenean, behinala *Eguna* desagertu zen bezala armen eraginez— ez zuten soilik egunkari bat bahitu: egunari eta munduari euskaraz begiratze-ko aukera zapuztu ziguten. Hamahiru urte generamatzan goizeroko makarrak euskarazko letrekin kentzen, euskaraz mintzo zen munduko albisteen erdian jartzen gintuen iparrorrazak: eta goizeroko begiradaren iparra ez zegoen *tú al Norte*-n, hegoa ere ez *yo al Sur*-en, brujulak markatutako puntu kardinalak euskararen maparenak ziren geografikoki eta kulturalki, eta EGUNKARIAK iraun zuen bitarteko ahalegin hartaz gaur gehien gogoratzen dudana da berripaperak kulturari ematen zion garrantzia, bertako orri kulturelek zuten kalitatea.

Bidegabekeriak eragin zuen erreake-

HAMAHIRU URTE
GENERAMATZAN
GOIZEROKO MAKARRAK
EUSKARAZKO LETREKIN
KENTZEN, EUSKARAZ
MINTZO ZEN MUNDUKO
ALBISTEEN ERDIAN JARTZEN
GINTUEN IPARRORRAZAK

zioa gure memoriaren paretetan gelditu da iltzatuta: BERRIA laster zen abian, eta Martxelo Otamendik egunero zutabe bat idazteko aukera oparitu zidanean, burutik pasatu zitzaidana da bidegabekeria erreparatu arte segitzeko aukera. Izan zedila nire mendekutxo. Absolbitu zituzten EGUNKARIAKO arduradunak, baina ez da kalte ekonomikoa erreparatu, eta ez dago kalte kulturala neurtuko lukeen zifrarik. Otamendirekin nengoela burutik pasatu zitzaidanari jaramon egitera, BERRIA-ko arduradunek eta irakurleek nitaz beste egin arte —edo nire indarrek pot egin arte— segitu beharko nuke nire goizeroko begiradari makarrak kentzen, bidegabekeria ez baitute sekula erreparatuko.

ANJEL LERTXUNDI
IDAZLEA

De Rerum Natura



@zaldieroa

Zorra

PASARTEREN batzuk lehen pertsonan kontatu daitezke soilik. Ez narratzailea orojakilea delako eta bere kontakizunak gainerakoena ordezkatzan edo islatzen duelako, justu kontrako gertatzen zaiolako baizik. Horixe gertatzen zait niri EUSKALDUNON EGUNKARIAREN 25. urteurrena gogoratzerakoan, orain dela 25-26 urte bizitakoak biziberritzaerakoan. Askoren ustez erabateko zentzugabekeria zen proiektu hari eman nion apurraren truke asko jaso nuen, hori daukat batez ere gogoan. Inoiz egin dudana inbertsio-ri onenetakoa izan zela esan dezaket, alegia, nahiz eta hori ez izan lorpen handia nire inbertitzaile profila kontuan hartuta.

«Zuk hor ze pintatzen duzu?», «Kontuz non sartuko zaren?», «Pentsatu al duzu ondo zer egin behar duzun?», «Lana eskaintzen badizute, ez zaizu ba okurririko baietz esatea?». Estilo horre-

tako galdera eta gomendioekin erakordaten naiz. Ez neukan denentzako erantzunik, eta igualtsu jarraitzen dut, baina ez zait inporta. Orduan ez asko, are gutxiago gaur egun. Egia esan behar bada, galdera batek izan zuen, bai, erantzuna. Lanik ez zidatenez eskaini, okurririko ere ez zitzaidan egin baietz esatea.

Dena den, ikuspegi egoistatik negozio borobila egin nuen. Artean hogeita hamar urte bete gabe, gaztelania nagusi zen erakunde batean lanean ari zen kazetari gazte batentzat, ba al dakizue zer zen ia astero, mahai baten bueltan, Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe, Joseba Jaka, Joan Mari Torrealдай, Luis Goya edota Txema Auzmendi, besteak beste, lanean ikustea? Horrek ez dauka preziorik. Hori ez da ahazten. Han ikasitakoak ere ez. Ezin dira ahaztu, eta ez daukate preziorik.

Ez naiz beste inoren izenean hitz

BA AL DAKIZUE ZER ZEN
IA ASTERO, MAHAI BATEN
BUELTAN, MARTIN UGALDE,
JOXEMI ZUMALABE, JOSEBA
JAKA, JOAN MARI
TORREALDAI, LUIS GOYA
EDOTA TXEMA AUZMENDI,
BESTEAK BESTE, LANEAN
IKUSTEA? HORREK
EZ DAUKA PREZIORIK

egitera ausartuko, honetan eta gainerakoetan bakoitzak duelako bere esperientzia, baina batzuetan iruditzen zait, gaiari buruzko artikulurik idatzi behar ez dudana egun korrienteetan, pluraleko lehen pertsonan ere idatz daitekeela honen antzeko zutabe bat. EUSKALDUNON EGUNKARIA gustatu ala ez gustatu, haren ondorengo BERRIA gustatu edo ez gustatu, hor egon zen bata eta hor dago bestea. Hor daude orain dela 25 urte ale bakan samarrak ziren kazetari euskaldunak, orduko zenbaiti —niri bai, behintzat— mila buelta ematen dizkigutenak. Eta ez dakit, EGUNKARIA gustatu edo ez gustatu, BERRIA gustatu edo ez gustatu, euskaldun askok ba ote dakiten hori zein garrantzitsua den. Ni zorretan nago, argi daukat, eta uste dut ez naizela bakarria.

NEREA AZURMENDI
KAZETARIA

Eskerrak emateko

GOGORATZEN ditut Iñaki Uriarekin ETBko Iurretako makillaje gelan izandako elkarriketak, ni bera baino askoz ere ezkorrago, eguneroko bat, egunkari bat, periodiko bat kaleratzeak zekartzan zailtasunak gainditu ezin iruditzen zitzaizkidalako, eta berak baietz, posible zela. Zalantzarik gabe, konbentziduta!



Orduan ere Durangoko Azokak eman zuen gerizpea eta bilgunea, urtebete beranduago, Azoka egunetan berriz ere, abenduaren 6an lehendabiziko alea kaleratzeko. Gogoratzen dut eskuetan hartu nuenean sentimendu asko gaineratu zitzaizkidala. Nire bizitza ere aldatzera zihoan asko, eta etorkizunera begira 32 orri haiek zuten garrantzia izugarria iruditu zitzaidan. Gaurko egunetik begiratu, oraindik ere garrantzitsuagoa iruditzen zait egun hartako orri sorta, eskuan izandako lehen EUSKALDUNON EGUNKARIA. Gogoratzen ditut asteroko zutabetxoak bidaltzen nituela proiektu handi hari egin niezaiokeen ekarpen gisara. Gogoratzen dut egunkari hura erosteak, besapean eramateak sortzen zidan poza, harro egon gintezkeela sentiarazten zidan. Zer esanik ez urte luzez egunkari hura, beste hainbat komunikabide, ikastolak... hau da, gure mundua, euskaldunon mundua euskaraz izan zedin borrokatu zirenei, herri hau, gure herria, Euskal Herria izan zedin borrokatu zirenei... Haiek zer sentitzen zuten! Bakan batzuek ezagutu ere ezagutu zuten EUSKALDUNON EGUNKARIAren aurrekari bakarra, *Eguna*, 1937an zappi hilabetez kaleratutakoa.



EGUNKARIAKO hainbat langile, lehenengo zenbakia kaleratu izana ospatzen. EGUNKARIA

Herri honen beste lorpen bat zen EUSKALDUNON EGUNKARIA ere, herritik sortu eta garatutako ametsa egia bilakatu. Herri honek badakielako, baduelako gaitasuna erakustaldietarako. Gai delako kilometroak eta ibilaldiak egiteko, gai delako Korrika egiteko. Tokatzen den orduan eta esaten den tokian, baina

egun bateko kontuez harago erakutsi duelako badakiela eraikitzen eskola, egunkaria, telebista, industria, ikerketa... Herria bera.

Gogoratzen dut nola poztu nintzen Donostiako belodromoan egindako festa handi bat aurkezteko deitu nindutenean, nola jantzita joan nintzen ere badak!

Ezin dut ahaztu Erramun Martikorenak eta Larragako Joterak *Erribera* kantatu zutenekoa. Ahotsa, ahotsak soilik, hutsik, belodromo handian, jendez gainezka zegoen Donostiako belodromoan.

Gaurkoa ospakizunekoa nahi nuen eta, ahalegina egin dudan arren, ezin izan dut. Behin eta berriz datozkit burura 2003ko otsailaren 20ko haiek. EGUNKARIA itxtearekin batera suntsitu nahi izan zituztelako herri honek bere buruari emandakoak, indarrez, bortizki eta gezurretan behin eta berriro, epaitegiek handik urte askotara absolutioarekin argi utzi zuten bezala.

Egun haietatik geratzen zaidan oroitzen on bakarra da —gehienak oso larriak, bortizak eta tristeak direlako— berriz ere herri honek erakutsi zuen indarra. Ez dute Donostiako kaleek halako jendetzarik beste inoiz jaso, ez da sekula halako salaketarik izan, ez eta halako ekimenik biharamunean bertan kioskoan EGUNKARIAren behin-behineko ordezkoa egon zedin.

Eskerrak ematea baino ez zait geratzen. Eta arrisksua izan da homelakoetan izenak ematen hastea jende asko ahazteko arriskua dago eta. Barkatuko didazue aipatu ez bazaituztet, baina eskerrik asko Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe, Joan Mari Torrealdai, Pello Zubiria, Iñaki Uribe, Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga, Luis Goia, Joxean Lizarribar, Joxe Mari Sors, Inma Gomila, Fermin Lazkano, Xabier Alegria eta EUSKALDUNON EGUNKARI hura egiten egoskortu zineten eta egunerorantz orri, albiste, albiste, egin zenuten gizon eta emakume guztioi.

MADDALEN IRIARTE
KAZETARIA

Ametsetik errealitatera

AMETSAK —sarritan— mugiarazten gaitu, eta errealitateak —batzuetan— geldiarazten...

Sasi-filosofia honekin hasita, EUSKALDUNON EGUNKARIAren sorreran eta hainbat urtetako jardueran izan zuen parte-hartzea aipatzera nator.



Ametsa izan zen bai, inolako zalantzarik gabe, euskarazko egunkari bateko lehen lankideetan egotea. Ilusioz beteta izan behar baitzen horrelako apustu baten egiteko, antzeko erronka batean sartze-

ko. Luzeak izan ziren prestakuntzarako lanak, egin beharreko azterketak oro egin zirela ziur naizelarik. Hala eta guztiz ere, aurretik zeuden eta aspalditik argitara-

ziren informazio astekarietako erri-motik egunkari baterako mailara pasatzea sekulako jauzia izan zen.

Gogoratzen naiz, lehen urte haietan, Baionako delegazioan lan egiten genuenok —baina beste delegazioetan berdintsu izango zen— dena egiten genuela, kartsutasunez eta, hitzaren baliatzera aurtuko naiz, militantziaz. Prentsaurreko edo gertakarien lekuetara joan, apuntatzekoak apuntatu, argazkiak hartu, erre-dakziora itzuli eta argazkiak errebelatu eta tiratu, artikulak idatzi, makinaren bihurrikierekin nerbioak higatu... Eta nik dakita zer gehiago ere!

Militantziaren garaiak ziren, zailak, nekagarriak askotan... Baina bihotz altxagarriak oso, gure etxearen, auzo herrien eta mundu zabalaren islak euskara gurean azaltzen, interpretatzen eta zabalzten

baikenituen. Militantziaren garaiak ziren, ametsarenak.

Gero etorri ziren profesionaltasunaren garaiak, ez asko errazagoak, bai aldi-

AMETSA IZAN ZEN,
INOLAKO ZALANTZARIK
GABE, EUSKARAZKO
EGUNKARI BATEKO LEHEN
LANKIDEETAN EGOTEA

jendarte sailkapenaren islakoak, gizarte eredu nagusien ildokoak, nonbait. Orduan zara oartzten hitzak bat daudela eta obratzeak, gehienetan, beste direla. Mundu bidezkoago eta elkartuago baten eraikitze bidean urratsak direla neketsu... Non ez diren gibel urratsak egiten ere.

Egunkaria bera —barkatu, «produktua»— ez da ez beste egunkari gehienak baino txarragoa, hobea ere seguruenik... Baina, nolabait esatearren, «besteak bezalako». Profesionaltasunaren garaiak dira, errealitatearenak, militantziaren ametsak haizatzen dituztenak. Nire partetik, militantziaren urratetik jarraitzea bueltatu naiz. Ametsetan sinetsi nahi baitut oraindik.

ALLANDE SOKARROS
KAZETARIA

Aldarrikapenen hamarkada

‘Argia’-ko kideek sustatu zuten euskarazko egunkariaren beharra

Etengabea izan zen euskara hutseko egunkariaren inguruko hausnarketa eta aldarrikapena 1980ko hamarkadan. *Argia* aldizkariak biziarazi zuen eztabaida hura: argi zuten euskara hutseko egunkaria beharrezkoa zela, eta hainbat hitzaldi eta mahai inguru egin zituzten horri buruz.

EUSKALDUNON EGUNKARIA SORTU aurreko urteez eta orduko giroaz hitz egitea izen propio jakin batzuez hitz egitea da: Joxemi Zumalabe, Pello Zubiria, Iñaki Urieta eta Josu Landa. *Argia* aldizkariak kazetariak ziren. Batik bat, haiek hartu zuten euskarazko egunkaria aurrera ateratzeko ardura: buruan iltzatuta zeukaten horren beharra, baita hura egiteko asmo irmoa ere.

Zeruko Argia izateari utzita, *Argia*-rako saltoa egin zuten. Aldaketaren garai hartarako han zeuden kazetari gazte haiek. Ez ziren garai onak astekariarentzat, Uriak gogoratu duenez: «Zerotik ez, astekaria zero azpitik ez dakit zein mailatatik martxan jartzea izan zen lehenengo lana». Hilabeteetan ezin izan zuten argitaratu, zorraz zirela medio, baina eman zioten buelta egoerari, eta, Uriaren arabera, 1981-1982. urtearen bueltan hasi zen astekaria egonkortzen eta irakurleen etxetara iristen. «Ordurako atera genituen editorial batzuk egunkaria derrigorrezko ikusten genuela esanez. Bizimodu modernoan —garai hartan moderno zena— klabea zen, beharrezkoa. Hamarkada hasieratik hasi ginen hori esaten».



Ezkerretik eskuinera, Ostaizka Irastorza, Joxemi Zumalabe, Pello Zubiria, Jon Barandiaran, Joseba Alvarez, Iñaki Urieta eta Josu Landa: *Argieroak* ziren, *Argia* aldizkaria ataka estutik atera eta berrabiarazi zutenak.

EGUNKARIA



Argia-ren Bilboko taldea, 1988an: I. Uriarte, X. Makazaga, J. Ispizua, I. Murrúa Urieta, X. Letona, I. Urieta, J. Zumalabe, E. Madariaga, N. Bello, A. Gutierrez, L. Mintegi, J. Sarasua, I. Makazaga eta A. Azkargorta.

EGUNKARIA

Egunkariaren proiektuak eritimo bizia hartu zuen hamarkada hondarrean, baina aurreko urteak aldarrikapen urteak izan ziren: mahai inguruak, artikulatuak, hitzaldiak... «Horietan guztietan, beti errepikatzen zen eskakizun bera: euskara hutseko egunkaria behar zela eta egin behar zela. Eskakizun hori egiten zitzaion Eusko Jaurlaritzari».

Eusko Jaurlaritzak, berriz,

ikus-entzunezkoen alde egin zuten 1980ko hamarkadaren hasieran: irriti eta telebista publikoak alde. Orduan sortu zen EITB. «Gobernuak beti egin zuten ikus-entzunezkoen aldeko apustua, eta idatzizkoak baztertu utzi zituen, bi hitzetan esatearren». Garai hartako ezinekin lotu du irriti eta telebista publikoaren sorrera Iñaki Zabaleta EHUKo katedradunak: «Bazegoen halako pentsamendu bat, zein esaten zuten errazagoa zela euskalduntzat euskaraz entzun eta ikustea, irakurtzea baino: irakurle kopurua horren handia ez zelako oraindik». Baina ezin horrek beste interpretazio bat ere badu, Zabaletaren ustez: «Badirudi logikoa dela, baina etsipena adierazten du mezu horrek: konfiantza falta adierazten du norberaren herrian eta norberaren indarretan».

Izatez, Eusko Jaurlaritzak pauso batzuk eman zituen egunkariaren bidean. Izan ere, egunkari itxurako astekariak diru laguntza

emateko deialdia egin zuten 1986an. Hiru proiektu aurkeztu ziren: *Egin* egunkariarena, *Deia*-rena eta *Argia*-rena. Lehenengo biak onartu zituen gobernuak, *Argia*-rena kanpoan utzita. «Lehiaketa abuztuaren atera zuten, epe oso laburrarekin: hala ere, aurkeztu genuen proiektua, eta kanpoan utzi gintuzten, errotatibarik ez genduelako aitzakian», gogoratu du Uriak. Hala sortu ziren *Hemen*, Orain Sarena (*Egin*), eta *Egu-*

na, Iparragirrearena (*Deia*).

Uriak adierazi duenez, «eraso» gisa bizi izan zuten hori *Argia*-n: «Bi astekari ziren, diruz lagundua, *Argia*-k jasotzen zituen laguntzak baino askoz handiagoekin». Denborarekin ohartu ziren astekariak ez ziotela «minik egin» *Argia*-ri: «Hasierako asmoa astekariaren bidez egunkariako bidea egitea zela esan zuten: guk garbi ikusi genuen hortik ez zetorrela egunkaririk». Diru laguntzak amaiztearekin amaitu ziren bi astekariak, 1990ean.

Zabaletaren ustez, *Argia*-ko lantaldeak bazuen besteek ez zuten zerbitu, eta gabezia hori izan zen astekari haien porrotaren gakoak. «Ahalegin hura ondo planteatuta zegoela eman arren, egunkari bat egiteko funtsezkoen konpromisoa eta konfiantza izatea norberaren indarretan eta herriaren indarretan. Hori falta zitzaien bai *Egin*-i, bai *Deia*-ri, baita Eusko Jaurlaritzari ere».

«EGIN EGIN DUGU»

Ezinak alde batera utzita, *Argia*-koek bazekiten aurrera egingo zutela.

Haiek izan ziren euskara hutseko egunkariaren motorra: aldarrikapenetan lehenengo, gauzaren gero. Baina horretan hasi baino lehenago, beste prozesu bat zeukaten irekita etxean bertan, *Argia*-n. «Produktzio mediodien jabe egiten hasi ginen. Lehenbizi, ordenagailu bat jartzea lortu genuen. Kontuan hartu garai hartan gure inguruko inork ez zuela halakorik: garestiak ziren, eta asko kostatu zitzaigun. Fotokonposizio makina batzuk jartzen ere hasi ginen, desegiteko bidean zirenak». Inbertsio

haiek *Argia* indartzea ekarri zuten. Izan ere, epeak laburtzeko aukera eman zieten, baita kostuak merkatzeko ere, Uriak adierazi duenez.

Azpiegitura teknikoan jabe egin eta prozesuen ezagutza berraztertuta bitartean, *Argia*-ko kazetariak «lanbidean onduz» joan ziren, eta, 1988-1989 inguruan, ohartu ziren aldarrikatzeari utzita gauzatu egin behar zutela. «Hasi ginen esaten alferrik zela aldarrikapenak egitea eta eskatzen aritea: jada ikusten genuen posible zela egunkaria egitea». Makineria martxan jartzearekin, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak CIES etxeari enkargatutako azterketaren emaitzak iritsi ziren 1989ko urtarrilean. Ikerketa zabalago baten barruan, atal bat zegoen euskarazko aldizkari eta egunkari hipotetikoaren irakurleei buruz. Emaitzak tiraderan gordeta eduki zituen gobernuak, aurrerago lantzeko asmoarekin, ustez. Baina *Argia*-k eskuratu eta publiko egin zituen, 1989ko urrian: euskara hutseko egunkaria bideragarria zen.

ESTRATEGIA ZABALA BATEN BILA

Handik aurrera, ez zen izan kazetari haiek geldituko zituen ezer.

«Inteligentzia handiz jokatu genuen momentu hartan: kontziente ginen egunkaria ezin genuela guk bakarrik atera, beharrezkoa genuela euskalgintzako beste eragileekin, editorialekin edo errotatiba zeukatenekin aliatzea». 1989ko azaroan, Donostiako Joxemiel Barandiaran lizeoan jende andana bildu zen euskarazko egunkaria martxan jartzeko, Euskal Kulturaren Batzarrean deituta. Abenduan, Durangoko Azokaren bueltan, egunkari berriaren oinarriak ezarri zituzten: euskaltzalea, nazionala, zabalak, baterakoa, alderdi politikoekiko independentea, erdal komunikabideekin independentea, ez-instituzionala, baina bai diruz lagundua, profesionala, militantea eta berria izango zen. Gogoan du une hura Zabaletak, bera ere tartean baitzen: «Estrategia zabala prestatu zen, herriz herri, eta Egunkaria Sortzen talde eragilea sortu zen; nolabait, proiektua gizarteratzeko eta proiektua sendo eta zabal eraitzeko urratsa izan zen». 1990eko urtarrilaren 21ean izan zen hori. Talde indartsua behar zuten izan, eta halakoa egin zuten, unibertsitete eta kultur arloko 75 lagunen bultzadarekin. Urtea amaitu baino lehen argitaratu zen EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1990eko abenduaren 6an.

Udarregi
IKASTOLA

Lotzen gattunk harira...!
Soka ez dadila eten!!!!

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTOLA, I.K.E

Gernika ibilbidea, 11 • Tel.: 943-36 12 16 • Faxa: 943-36 37 43
usurbil@ikastola.eus

Urtebete baino gutxiagoan egin zen dena: proiektua sozializatu, babesa eta baliabideak bilatu, kazetariak eta egunkariaren discinu eta irizpideak prestatu... Emaizta EUSKALDUNON EGUNKARIA izan zen.

Ilusioa eta grina gainezka. Ezin bestela egunkari bat hutsetik abiarazi hain epe laburrean. Ezin bestela erritmo ero haren nekeari eutsi, ilusioa eta grina gainezka izan ezean. Egunkari gosea asetzeko garaia zen. 1989ko azarotik 1990eko urtarilerira, hiru hilabete eskasetan, abiada bizia hartu zuen euskarazko egunkariaren aldeko mugimenduak. Tarte hartan egin zituzten Euskal Kulturaren Batzarreak deitutako bilera, Durangoko Azokakoa eta Egunkaria Sortzen talde eragilea eratu zuena, proiektua bultzaraziz.

Lan esparruak finkatu zituzten azkenekoan: harremanak lantzea, norbanakoekin zein erakundeekin; kazetari proiektua garatzea; eta dirua biltzeko kanpaina egitea. Apirilaren 7an onartu zuten euskal egunkarirako proiektua, eta talde horretan aritu ziren Imanol Murua Uria eta Garbine Ubeda kazetariak. *Argia*-n zebiltzan biak. Kanpainarako, *Argia*-ko lanetatik liberatu zituzten: prentsa bulegoan aritu zen Murua, eta diseinuan Ubeda. Hark diseinatu zituen zero alea eta mantxeta: «Hori izan zen *Argia*-ren ekarpena».

Diseinuari adarretatik heldu aurretik, zenbait erabaki hartu behar ziren: «Zein atal edo sail izan beharko litzukeen, zein ordenatan, beste egunkariak dituztenak izan behar zituen edo beste batzuk...». *Estatuak* saila izan zen nobedadeetako bat, Muruak gogoratu duenez: «Espainia eta Frantziako albisteak sartzen genituen hor. Hasieran, nahiko iraultzailea izan zen biak sartzea, Espainia bakarrik sartu beharrean. Allande Sokarrosek eta Joxemi Saizarrek egin zituzten».

Erreferentzia falta sentitu zuen Ubekak, eta ez zen bakarra: egunkariak bazeuden Euskal Herrian, baina ez zituzten erreferentziatzat: «Guk egin nahi genuen egunkari horrek ezauzgarri oso partikularrak izango



Egunkaria Sortzen-ek abiatutako kanpaina uztailearen 15ean amaitu zen, Donostiako belodromoan egindako festa baten bidez: bertan banatu zuten EUSKALDUNON EGUNKARIAREN zero zenbakia. EGUNKARIA

«Udazkenean jaioko da»

1990eko apiriletik uztaile bitartean egin zuten euskara hutsezko egunkariaren kanpaina



Dirua biltzeko hainbat modu jorratu zituzten: irudian, EGUNKARIAREN alde Bilbon egindako festan, itsastekoak saltzen. EGUNKARIA

zituena: beraz, ez zuen zerikusirik besteekin».

1990eko uztailearen 15a mugarri izan zen euskara hutsezko egunkariaren atzera kontuan. Ubekak ez dauzka ahazteko orduan ateratako izerdiak. «Mila proba egin genituen ordurako, baina ez genuen behin ere lan egin erlojuaren kontra, edo ez behar bezala, behintzat».

Egungo betaurrekoekin begiratu, «oso polita» izan zela dio, nahiz orduan ez zuen halakorik sentitu. «Zapore txarra utzi zidan; pentsatu nuen ez ginela gai izango. Diseinuen aldetik, atzeratu egin ginen dezente». Dena eman zuen lantaldeak, baita zero zenbakia kaleratzea lortu ere. Jaiotza iragartzera ere ausartu ziren: «Udazkenean jaioko da». Hori izan zen uztailearen

no gehiago», gogoratu du Muruak. *Argia*-n ere egin zuten bilerak: batzuk bertan geratuko ziren, eta beste batzuek egunkarian lan egingo zuten. Ubeda *Argia*-n gelditu zen, eta Murua egunerokora joan zen.

Lantaldea definituta, 1990eko irailean, azken urratsa baino ez zen falta. Korrikalariak lasterretarako nola, hala trebatu ziren kazetariak abendura bitartean, Muruaren arabera: «Zer zenbakiak egiten genituen etengabe, abendura prestatuta iristeko». Baldintzatuta zetorren egunkari berria. «Ez zuen bere inprentarik izango, ezta zabalkunde propiorik ere momentuz, eta baldintza txarrekin jokatu behar izan genuen», gogoratu du Ubekak.

TREBATU, TREBATU, TREBATU

Kanpaina abiatu aurretik hasi zen kazetariaren prestaketa. Murua *Argia*-ko Bilboko lantaldean zebilen, eta ondo gogoan ditu 1989 amaieran Bilbotik Donostia egindako bidaiak. Gauetz. «*Argia*-ko erredakzioan gaupasak egiten genituen, alegiazko egunkari bateko testuak idazten». Koldo Izagirrek zuzentzen zizkien testuak: «Gorritz azpimarratu, eta banan-banan pasatzen ginen: egurra ematen zigun, esanez zer zen onartezina egunkari batean». Kanpaina amaituta, deialdi irekia egin zuten, *Argia*-z kanpoko kazetariatzat: «Nahiko autodidaktak izan zen: batzuk koordinatzen, besteak taldeak egiten, sailak muntatzen... Testuak irakurri eta komentatzen genituen».

Ikastaroaren ostean, lantaldea definitzeko garaia iritsi zen. «Ez ginien asko, baina bai behar bai-

Agur t'erdi

Euskaldunon aspaldiko ametsa egia bihurtzen dugu EGUNKARIA plazaratzean, eta milaka euskaltzaleren bultzadari esker ekiten diogu bide berri honi. Azken urteotan euskal kulturak lortu duen elkartasunik zabalena babesean sorturik, egunkari nazional, euskaldun, independente eta zabala eskaintzea da gure ahalgina. Aurrerapen teknikoaren erabilera egoki batekin, EGUNKARIA burutzen dugun ekipo osoak euskarazko prentsari Euskal Herrian saltzen diren erdarazkoen artean leku duin bat egitea du helburu, euskaldunak eguneroko informazioa bere hizkuntzan hartzeko duen eskubidea erabili ahal izan dezan. Ziur gaude beren publikizitatea eskainiko diguten enpresei, euskarazko edozein mediok behar dituen dirulaguntzak eman behar dizkiguten erakunde publikoei eta funtsean gure bultzatzaile sutsuenak ditugun euskaltzaleen babesari esker, EGUNKARIAK etorkizun oparoa izango duela. Euskal nazioaren eta euskararen aurrerapenaren alde lehiatu direnarenak da gaur gure oroimena, zailtasunen beldurrik gabe proiektua martxan jartzen laguntzen duten guztientzako gure esker ona eta Euskal Herri osoarentzako gure EGUNKARIA.

EGUNKARIAREN 1. ZENBAKIKO MEZUA

GARBINE UBEDA: «Zero zenbakiak zapore txarra utzi zidan; pentsatu nuen ez ginela gai izango. Diseinuen aldetik, atzeratu egin ginen dezente»

Mundua irakurriz gure herria idatzi dezagun ari gara lanean

PASIA - LEEZ
LIZEOA

EUSKALDUNON EGUNKARIA-
ren bultzatzaileek argi
ikusi zuten proiektuak
herri mugimendutik sortu
behar zuela. Euskal
Herrian, oro har, 185
batzorde sortu ziren auzo
eta herrietan: guztira, 3.000
boluntario aritu ziren
proiektua ezagutarazten
eta baliabide ekonomikoak
lortzen.

Zenbait urtetako berotze ari-
keten emaitza izan zen 1990.
urtea. Negua izan arren, bero
zegoen giroa, bero hasi zuten
urtea. Izan ere, EKBk 1989ko
azaroan antolatutako bilerak eta
abenduko Durangoko Azokako
topaketak jarraipena izan zuten
urte hasieratik: urtarrilaren
21ean egin zuten Egunkaria Sor-
tzen talde eragilea osatu zuten
bilera, Donostiako Udalaren
Euskal Txokoan. Indartsu osatu
ere, kultur arloko 75 lagunek
parte hartu baitzuten talde har-
tan. 1980ko hamarkadan euska-
ra hutsezko egunkari baten
beharra gero eta ozenago erre-
pikatu ostean, azken urratsak
egitea falta zen: proiektua eza-
gutarazteko eta baliabide eko-
nomikoak lortzeko garaia zen.

Txumai Iturriak oraindik ere
gogoan ditu 1990ean egiteko
zeuden lanak eta harekin lane-
an aritu zirenen izenak. Ariketa
ez hain erraza, 25 urteren oste-
an. Iturria herri batzordeen
koordinatzailea izan zen Euskal
Herri osoan: Egunkaria Sortzen
taldea eratu ostean, haien txan-
da iritsi zen. «Hiru lan esparru
zeuden urte horretarako: harre-
manak lantzea, norbanakoekin
zein erakundeekin; kazetariak
eskuratu eta trebatzea; eta dirua
biltzeko kanpaina diseinatzea». Azken horretan jardun zuten
herri batzordeek, batez ere: api-
riletik uztailaren erdialdera arte
iraun zuten kanpainak, eta bi
fase izan zituen. Lehenengoan,
proiektua sozializatzea zen hel-
burua; bigarrengoan, egunkaria



Ohol handiak jartzen zituzten Egunkaria Egunak ospatzen ziren herrietan, herrietako jendeak albisteak idatzi eta publizitate moduluak lortzeko: aparteko erantzuna jaso zuten antolatzaileek. EGUNKARIA

Euskarazko egunkariaren alde, «gainezka»

Egunkaria Egunak baliatu zituzten euskara
hutsezko egunkaria gizarteratu eta baliabide
ekonomikoak lortzeko bitarteko gisara

gauzatzeko baliabide ekonomi-
koak lortzea.

«Otsail edo martxo aldera»,
hasi zen lanean Iturria. Lurralde
bakoitzerako arduradun bana
behar zuten, eta, gero, horiek

guztiak koordinatu. «Kanpaina
lurraldeka orekatua izatea nahi
genuen, eta ahalik eta herri
gehienetara iritsi: oker ez bana-
go, lehenbiziko Egunkaria
Eguna Saran izan zen, Lapurdin,

Herri Urrats bezperan». Antola-
keta nazionalak bermatzen zuten
festa zegoen herrira furgoneta
bat iritsiko zela, materialarekin.
«Ohol handi batzuk zeramatzan-
ten, herrietako jendeak albiste-


ak idazteko eta publizitate
moduluak lortzeko: hori zen jai
horien muina». Oholez gain,
herri batzorde bakoitzaren esku
zegoen festaren ereduak aukera-
tzea: kontzertuak, bertso afariak,
herrian ohikoa zen beste jai-
gun batean txertatzea...

KONPLIZE BILA, HASIERATIK

Norengana jo,
baina, laguntza
eske? «Halako
kontuetan espe-
rientzia zutenengana jo genuen:
batez ere, AEK-koengana. Azal-
du zidaten Korrikan zein irizpi-
de erabiltzen zituzten, eta hor-
ren arabera hasi ginen lanean». Iturriak gogoan du nola aritu zi-
ren aztertzen herrietako euskal-
dun kopuruen eta biztanleen arte-
teko erlazioak eta, horren arabe-
ra, bakoitza noraino iritsi
zitekeen: «Zenbaki hotzak atera-
tzen dira, eta ez genekien herri
bakoitzak nola erantzungo
zuen». Ezinezkoa zen emaitzak
aurreikustea, baina laster uxatu
zuten beldurra. «Erantzuna hain
izan zen ona, gainezka egin zi-
gun. Ilusio handia zegoen; zer-
bait herri zen, egingarria. Baze-
goen berotasun bat: nabarmena
zen herrietara joaten ginenean».


Tarte hanka sartzeren bat
egin zuten, Iturriak irri artean ai-
tortu duenez. Itsasondoko (Gi-
puzkoa) festara ez zen ailegatu
furgoneta. «Hurrengo egunean
joan behar izan genuen barka-
mena eskatu eta beste festa bat
planteatzera. Furgoneta eraman
behar zuena Hernanikoa zen,
eta han sanjoanek ziren...».

Josu Esnal Argia-n zebilen
lanean garai hartan, euskarazko
egunkaria martxan jartzen buru
izan zen astekarrian. Promozio
arduraduna zen, eta zeregin
berria, Gipuzkoako herri batzor-
deak koordinatzea, Joxemi
Zumalabek proposatu zion.
Laurgei batzorde inguru osatu
ziren Gipuzkoan; Euskal
Herrian, 185 izan ziren orotara,
3.000 boluntario inguruk osatu-
ak. Esnalen arabera, Argia-n
arrituta, euskaltzale asko ezagu-
tzen zituzten, eta horrek lana



ZUMARRAGAKO UDALA

25 urte aurrerantz begira!
¡25 años mirando a futuro!



erraztu zion. «Euskalgintzan aritzen ziren taldeak, ziur aski, ez dira izango gaur egun bezainbeste, baina nahiko indar zuten, kontzientzia handia. Lan grina, berriz, izugarria».

BALIABIDE NAGUSIA, ILUSIOA

Ez ziren garai errazak ekonomikoki. «Baliabide materialak ez ziren beste mundukoak: ohol handi horiek eta furgoneta pare bat geneuzkan Euskal Herri osorako. Baliabide nagusia ilusioa eta gogoia izan ziren». Hitzok errepikatu dituzte Mikel Lakastak eta Txema Egigurenek, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko batzordeak koordinatu zituztenek. «Alimaleko bihotza jartzen genuen, beti bezala. Bakoitzak ahal zuena jartzen zuen, eta horrela egiten genuen lan», gogoratu du Egigurenek. «Oso dinamikoa zen dena. Ez zegoen ordutegirik, ordu asko pasatzen nituen errepidean, baina gogoan daukat ez zitzaidala astuna egiten», dio Lakastak. Hirurak bat datoz: herri guztietan zegoen jendea lanerako prest. «Horrek asko erraztu zuen lana, eta lagundu zuen nekeak gainditzen», esan du Esnalek.

Izan ere, lanerako aitzakia ez zen makala. «Gure komunikabide bat sortzea, Euskal Herria aintzakotzat izanik eta gure mintzairan egina, apustu handia zen, eta ilusioz hartu genuen», azpimarratu du Egigurenek. Egunkaria Egunak antolatzea herri batzordeen esku zegoen, «%90ean»: Esnalek azaldu duenez, eurek aholkuak eta ideiak ematen zizkieten, azpiegituraz gain. Normalean, herrietan ohikoak ziren jaietan txertatzen ziren Egunkaria Egunak, edo, bestela, herriko dantza talde, erromeria eta bestelako taldeekin hitz eginda antolatzen zituzten egun osoko jaiak. «Baliatzen genituen jada egiten ziren bestak: Herri Urratsen ere egon ginen, euskarazko egunkaria zer zen zirkuituan zehar azaltzen», gogoratu du Egigurenek.



Uztailaren 15ean amaitu zen herri batzordeen kanpaina, Donostiako belodromoko festan: zero zenbakia banatu zuten bertan. EGUNAKARIA



Euskaldunon Egunkaria-ren azal erraldoi bat jarri zuten ohol-tza gainean uztailaren 15ean egin zuten festan. EGIN

✓ **TXUMAI ITURRIA:** «Esperientzia zutenengana jo genuen, AEKrengana, batez ere: Korrikan zein irizpide erabiltzen zituzten azaldu zidaten»

JOSU ESNAL: «Euskalgintzan aritzen zirenak, ziur aski, ez dira izango egun bezainbeste, baina nahiko indar zuten, kontzientzia handia. Lan grina, berriz, izugarria»

TXEMA EGIGUREN: «Baliatzen genituen jada egiten ziren bestak: Herri Urratsen ere egon ginen, euskarazko egunkaria zer zen zirkuituan zehar azaltzen»

MIKEL LAKASTA: «Oso dinamikoa zen dena. Ez zegoen ordutegirik; ordu asko pasatzen nituen errepidean, baina gogoan daukat ez zitzaidala astuna egiten»

Bi egun ditu gogoan iltzatutak Lakastak. Horieta bat, Lizarrako (Nafarroa) ikastola inplikatu zenekoa: bertso afari bat antolatu zuen, Xabier Silveirarekin. Bestea Burlatan (Nafarroa) antolatutako kontzertu bat izan zen: Zaramak eta Minxoriak taldeek jo zuten. «Bitarteko gutxi-ekin eta esperientzia are gutxiagorekin egin genuen. Dena zen boluntarioa. Pentsatzen jarrita, ez dakit nola lortu genuen: kontratazio lanak, kartelak egin, sarretrak, boluntarioak lotu... Dena egin genuen».

IZERDIA PATSETAN, AURRERA

Zaitasunak egon bazeuden, dena den. «Iruñean oso zaila zen: basamortuan predikatzea bezala zen», nabarmendu du Lakastak. Instituzio eta enpresa handietatik jasotako erantzunagatik dio hori, batez ere. «Ez nintzen saltzaile profesionala, eta zaitasunak ikusten nituen. Euskarazko egunkaria izanik, publikitate lortzera joan eta, publikitate jartzeko baino gehiago, konpromisoa eskatzen genuen».

Lurraldearen beharrak eta erre- alitateak desberdinak ziren, Egigurenen arabera, eta horrek

batzuk zein besteak baldintzatu zituen. «Ipar Euskal Herrian ez daukagu mintzairaren estatusik, ez errekonozimendurik, ez lurralderik. Beraz, guretzat, zama bat gehiago zen». Eta, hala ere, hori ez zen oztopo izan: «AEKrekin genbiltzan, gaur egun bezala, ikastolen borrorik: horretan sartu ginenok sinisten genuen bata ez zuela besteak kentzen, lan gehiago egongo zela egiteko, baina ezinbestean egin beharreko zer bait zela».

Herri batzordeen kanpaina uztailaren 15ean amaitu eta itxi zen, Donostiako belodromoan eginiko festaren bidez. Boluntario guztiei eta alde edo moldez proiektuaren alde jardun zuten guztiei eskerrak ematea zen helburua. Baita EUSKALDUNON EGUNKARIA jada erre- alitate bihurtua zela erakusteko ere: zero zenbakia banatu zuten han, eta, udazkena amaitu baino lehen, lehenengo zenbakia aterako zutela hitzeman zuten. Bazetorren euskara hutsezko egunkari nazionala, ez zegoen atzera bueltarik, eta ez zuten huts egin: 1990eko abenduaren 6an sortu zen EUSKALDUNON EGUNKARIA.

PANELFISA



lantaldearen ekintza

TOLOSA

Ez daudenak gogoan

Ez ditugu ahazteko 25 urteotan euskara hutsezko egunkariaren alde lan egin duten eta jada ez dauden lagunak: Jose Antonio Arana Martija, Joxemari Arin, Eugenio Arraiza, Julia Berrojalbiz, Claudio Cristian Caimaris, Mari Loli Cerradelo, Patxi Etxeberria, Gotzon Garate, Sabin Gaztañaga, Luis Goia, Inma Gomila, Alfontso Irigoien, Manu Intxausti, Miren Arbil Izagirre, Aritz Jainaga, Joseba Jaka, Iñaki Larrañaga, Emile Larre, Joan Mari Lekuona, Joxan Lizarribar, Juanjo Manotas, Luis Munozguren, Luis Nuñez, Joseba Olalde, Eusebio Osa, Aitor Renteria Txato, Lorenzo Rojo, Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Iñaki Uriarte, Carlos Villagran, Xabier Zabarte eta Joxemi Zumalabe.



Argia-tik zetozen batzuk. Hainbat lekutatik beste batzuk; **Hemen eta Eguna** astekarrietatik, besteak beste. Historia egitekoak ziren; gerra garaian 1937an argitaratu zen **Eguna** ahaztu gabe, euskara hutsezko lehenengo egunkaria egitera zihoazen.

«Ilusioa nabarmenduko nuke, euskarazko lehen egunkaria errealtate egiteko grina... Baita proiektu txukun bat egiteko ardua eta erantzukizuna ere». Gorane Agirre kazetaria Bilboko erredakzioan aritu zen, eta lankide izan zuen Ramon Basaldua kazetaria. «Bilbon aurkitu nuen jendea lankide baino gehiago zen: lagunak ziren», azpimarratu du Basalduak. Hamaika pasadizo ditu gogoan; horietako bi, EGUNKARIAREN lehenengo zenbakia prestatzen ari zenekoak, hain zuzen. «[Javier] Clementeri elkarriketa egin nion, eta hark esan zidan: 'Zortea duzu, ez dut-eta ulertuko idatziko duzuna: nahi duzuna idatz dezakezu!'. Elkarriketa hartan, izena aldatu zion, nahi gabe, kirol saileko lankide Xabin Makazagak: Ramonek ez baizik Romanek sinatu zuen elkarriketa hura. «Eta uste dut ez zela bakarria izan: gehiagotan ere aldatu nion», dio Makazagak.

Ana Unanuek ez zuen bizi izan hasierako prozesua, Alemaniara joan baitzen 1990eko udan. «Gregor Gysi alderdi komunista-ko —gaur egun Die Linke— buruari elkarriketa egin, eta *Argia* ra bidali nuen. Horrela iritsi zen nire izena EGUNKARIA egiten ari zen taldera». Nazioarteko sailean egin zuen lan, Iruñeko ordezkaritatzetik. Gogoan du nola joan ziren Alberto Barandiaran lankidea eta biak *Argia*-ren Donostiako egoitzara, alegiazko zero zenbakiak egitera. «Luistxo [nazioarteko sailaren burua] teletipo batekin agertzen zen bakoitzean, dardarka hasten nintzen. Es-



EGUNKARIAKO lantaldea *Argia*-ren egoitzan, 1990eko azaroan: A. Gostin, J. Aldai, J. Oiz, X. Lekuona eta J.L. Aizpuru ageri dira. EGUNKARIA

Hasiera, langileen begietatik

Bestelakoak ziren kazetaritza egiteko baliabideak 1990ean, EGUNKARIA sortu zenean: orduko komeriak eta pasadizo bitxi ugari dituzte gogoan, oraindik ere, hasierako kazetariak

kuz idatzi nahi izaten nituen berriak, gero ordenagailuz *garbira pasatzeko*. Eta Luistxo: 'Ordenagailura, bizkor! Hogei minutu, bi mila karaktere!».

Barre egin du Luis Fernandezek, Luistxok, hori entzutean: «Beti izan dut joera bat beldurra sartzekoa, baina hain beldurgarria ere ez naiz». 1990eko udan egindako trebakuntza ikastaroan irakasle aritu zen: «Pentsa zein merke zegoen irakasle izatea. Gu bezalako kazetariak eta geure buruari eman genion eskola, nolabait». Nazioarteko berriak teletipoen eta beste hedabideen bidez osatzen zituzten, halabeharrez. «Ikerketa askorik ez nuen egiten, eta bidaiak askorik ere ez!». Hizkuntzari ere zuzenean eragiten zion gaiak: «Ez zegoen izendegi ofizialik, eta nik neurea propioa asmatu nuen, oso irizpide okerrekin. Zuzendu zidaten, eta uste dut hori pizgarri bat izan zela gero estilo liburuaren lantaldean sartzeko». Ordu askoko lanegunak izaten ziren, baina ez zion axola. «Giro ona zegoen, zerbait inportante egiten ari ginelako sentipena. Gazteak ginen, eta ez genuen asko kobratzen, baina oso pozik geunden».

Pilar Mendibil muntatze mahaian hasi zen lanean, baina handik gutxira zerbitzuburu aritu zen. Mendibilen lana EGUNKARIAREN produktu guztien kontrola eramatea zen, lanen jarraipena egitea eta aurrez markatutako ordutegiak betetzen zirela egiaztatzea. «Horregatik maite ninduten hainbeste», dio, ironiaz. EGUNKARIAREN lehen zenbakia, paradoxaz, zenbakirik gabe ateratu zen, eta Mendibilek ondo gogoan du zergatik: «Azalak 0 zenbakia zuen, Donostiako festarako erabilitakoa berrerabili baikeen. Oso goiz hasi ginen 1. zenbakia prestatzen, baina oso larri ibili ginen. Hutsak ez ginen konTURATU plantzak egin arte: ezin genuen berregin, eta zenbakirik ez jartzea erabaki genuen».

Argia-tik zetorren Lorea Agirre kazetaria; bertan ikasitakoak

aplikatu zituzten EGUNKARIAN: «Onenak izan behar genuen, *El País* edo *Le Monde*-ren parekoak. Kazetaritza ona eta onena egiteko ardua hori oso barneratua genuen: euskararen alde, baina baita kazetaritzaren alde ere».

HANKA SARTZEAK, ERRAZ

Hanka sartzeren bat ere egin zuten: eskuz muntatzen ziren orriak, eta erraz gerta zitezkeen okerrak, Agirrerren arabera. «Behin, bi albiteren argazkiak trukatu genituen, nahi gabe: babestutako putretegi baten ingurukoa zen bat, eta Gernikako arbolaren bueltan egindako ekitaldi ofizial batekoa bestea».

Lanak izaten zituzten testuak eta argazkiak ordezkaritzaetik egoitza nagusira bidaltzeko. Orriak modem bidez bidaltzen ziren, eta argazkiak, berriz, autobusez, errebelatu ostean: urte luzeetan, 16:00etako autobusean iritsi ziren delegazioetako argazkiak Donostiara.

«Lanaldi luzeak» ditu gogoan Pello Urzelai kazetariak. Baita orduko egoera ere, hainbat ikuspuntutatik: «Adibidez, Eusko Jaurlaritza beste egunkari proiektu batekin zebilen. Kontu horretan giro politikoak zerikusi handia zuen». Dena den, EGUNKARIAK harrera «oso ona» izan zuela gogoratu du: «Alaia izan zen, espero baino hobea: garai haiek ez ziren batere alaiaik, egoera ekonomikoa latza baitzen».

Iñaki Martiarena *Martin* infografista aritu zen EGUNKARIAREN lehen zenbakietan. Lehenean, hain justu, Durangoko 25. Azokaren inguruko infografia handi bat egin zuen, azokako postu bakoitza non zegoen erakusten zuena. «Oso komentua izan zen, inoiz ez baitzen halakorik ikusi euskarazko prentsan», azaldu du. Gerora, ilustrazioak egin zituen hainbat sailetarako, eta beti lanez lepo zebilela gogoratu du. «Lana beti zen presazkoa: bizi-bizi egiten genuen, oso epe laburrekin».



Alegiako
Udala



Alegia euskararekin bat





Arregi 1994ko Kultura sailburua, Uria, Torrealdaik eta Ugalde, Jaurilaritzak eta EGUNKARIAK akordioa sinatu zuten egunean.

ANDER GILLENENA



Ebaki egin berria haragi bizitan

1988an sinatutako Ajuria Eneko itunak zuzeneko eragina izan zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAREN hasieran

Hasiera zaila izan zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAK: aurrez aurre izan zituen Eusko Jaurilaritzaren egunkari publikoaren itzala, batetik, eta boikot instituzionala, bestetik.

1989aren hondarrean hasi ziren urak mugitzen, eta 1990eko urtaririlean hasi zen EGUNKARIAREN itsasgora. Bilerak ugari izan ziren, baina bi izan ziren proiektuarentzako garrantzitsuenak, Joan Mari Torrealdaik gogoratu duenez. Lehenengo, urtarrilaren 21ean egindakoa. Egunkaria Sortzen talde eragilea sortu zen orduan. Lan eremu eta taldeak ere finkatu zituzten: talde bateragilea, kazetari batzordea eta batzorde ekonomikoa. Lan banaketa eginda, lanean jartzeko ordua zen. Torrealdaik hiruretatik bitan zegoen, kazetari batzordean eta

talde bateragilean, baina bateragilean aritu zen gehienbat.

Aurreko hamarkadan hainbeste zeresan eman zuen euskara hutsezko egunkaria bazetorren: guztiz ezaguna zen Egunkaria Sortzen taldearen jarduna. Apirilaren 7an egin zuten Torrealdaik aipatutako bigarren bileran garrantzitsua: «Proiektu periodistikoa onartu egin zen, eta proiektuari formula juridiko bat ematea ere bai. Kultur elkarre bihurtuko zen Egunkaria Sortzen, eta elkarte mugatu bat izango zuen ondoan, praktikotasunerako; geroago etorriko da Egunkaria SA». Euskara hutsezko egunkari nazionala egiteko erronkak hauspotuta ari ziren lanean, eta orduantxe iritsi zen kolpea: «[Joseba] Arregik-eta [orduko Kultura sailburua] bereak ere egunkari bat egingo zutela jakinarazi zuten».

Eusko Jaurilaritzak bazekien martxan zela Egunkaria Sortzen egunkaria. «Lehenengo bisita

oso goiz egin genion Arregiri [Karlos] Santamaria, [Joxemi] Zumalabe eta hirurok. Martin [Ugalde] kanpoan zen». Torrealdaik gogoan du bilera horretaz idatziz zuela Santamariak *El Diario Vasco*-n, Arregik Egunkaria Sortzen-en proiektua begi onez ikusi zuela esanez. «Niri baiko-rreria iruditu zitzaidan hori. Esango nuke poker aurpegia jarri zuela, sentimenduak edo gogoak ez azaltzeko».

Beraz, bi proiektu izango ziren martxan aurrerantzean; teoriar, behintzat, hala zen. Izan ere, Eusko Jaurilaritzak esan zuen egunkari bat egiteko zela, baina hortik sortu zen lantaldeak beste funtzio bat izan zuen. «Gero osatu zuen taldea, [Jose Ramon] Belokiren taldea, ez zen egunkari bat egiteko, egitekotan nolakoa beharko zukeen zehazteko baizik». Egunkari publiko hori, gainera, 1988an sinatutako Ajuria Eneko Itunaren barruan sartuko zen, gerora Joseba Arregik zehaztu zuenez. «Ordura arte, gure gizartea zatitzeko moduak ohikoak ziren: espainolista eta abertzaleak, ezker eta eskuina. Itun horrek beste ebaki bat sortu zuen: demokratena eta ez-demokratena». Arregik egunkarigintzara eraman zuen bereizketa, nahiz ez zen hori haren inguruko guztien nahia.

BESTEAK, «EZ» DEMOKRATAK» 1988an ebaki bat ireki zen abertzaleengan, eta

nabaria zen min ematen jarraitzen zuela urte pare bat geroago. Egunkari publikoa Ajuria Eneko Itunaren barnean kokatzeak «ez-demokraten zakura» zokoratu zuen herri mugimendutik zetorren egunkaria: «Garrantzitsua da gogoratzea gure proiektua ez zela proiektu politiko gisa sortu. Baina agintean dagoenak esaten badu beraiek aterako dutela egunkari bat, eta haiena demokraten egunkari bat izango dela, gu orduan ez-demokraten egunkaria egiten ariko ginen, eliminazioz».

Argia-tik zetorren euskara hutsezko egunkariaren proiektua, eta, hain zuzen ere, proiektu sendo eta zabala izan zedin, kultur eragile eta herritarrengana jo zuen hasieratik. Egunkaria Sortzen talde eragilea 75 lagunek osatu zuten; kultur arloko eta euskalgintzako jendeak, hain zuzen. «Gurea euskal irakurle guztientzat egindakoa zen, ebaki politikorik gabe: garrantzitsua da gogoratzea proiektua kulturatik zetorrela».

Ebakiaren alde banatan jarri

zituena bi proiektuak Kultura sail-buruak. «Politikaren barruan eta abertzalegoaren barruan zegoen haustura handiarekin abiatu ginen, etenaren erdi-erdian». Horrekin aldo kalteak izan zituen, oso agerikoak, gainera: «Kalte handia egin zigun kanpainan, onarpen soziopolitikoan eta diru iturrietan, publizitatean».

IRAUN, ETA IRABAZI Ustez egitekoak ziren egunkari publikoaren itzalak zauritu zuen herri mugimenduan zebiltzanen gogo.

«Sekulako mina egin zigun. Bitan banatu zuen euskaldungoa: onak alde batean, eta gu, gaiztoak, bestean. Ataka zailean jarri gintuzten. Jatorrizko bekak omen genuen guk». Paraleloki zihoin egunkari publikoaren itzala ez zen izan, ordea, Egunkaria Sortzen taldekoen buruhauste bakarra: kezkarik handienak boikot publizitarioa eta diru laguntzen ukoa izan ziren.

EGUNKARIAK ez zuen Jaurlearitzaren publizitateari jasotzen. «Boikot publizitarioa egin zitazigun hasieratik. Horrekin jaio ginen, eta horrekin bizi izan ginen lau urtez». Torrealdaiak gogoratu duenez, etengabe eskatzen zieten Eusko Jaurlearitzari hitz egitea, negoziatzea. Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joxemi Zumalabe eta Torrealdai joan ohi ziren hasierako bilera «gutxi» haietara. Beti mezu berarekin joaten ziren. Torrealdaiaren arabera: publizitate instituzionala lehenengo, diru laguntzak gero. Kontu egin behar da urte haietan publizitate instituzionalak diru asko uzten ziela egunkariei. «Baina hark [Arregik] ezetz, ez zuela emango. Diru laguntzen akordioarako bidea ireki ere ez zuen egiten. Horrela ibili ginen hiru urtez, frontis baten kontra ariko bagina bezala».

Bilera haietako batetik alde egin zuen Ugaldek, Arregirekin haserret. «Martinek azken hitza eskatu zion Arregiri, ea publizita-



Arregi, Uria eta Torrealdai, akordioa sinatzeko unean. ANDER GILLENEA

✓ JOAN MARI TORREALDAI:
«Ordura arte, gizartea zatitzeko moduak ohikoak ziren: itun horrek beste ebaki bat sortu zuen: demokratena eta ez-demokratena»

«Sekulako mina egin zigun: bitan banatu zuen euskaldungoa: onak alde batean, eta gu, gaiztoak, bestean. Ataka zailean jarri gintuzten»

«Gure onetik aterata, joko eremua beste aldearen eskuetan utziko genuen: joko politikoan sartuko gintuzten, eta ez zen hori gure esparrua»

tea eta diru laguntza emango ote zituen. Arregik ezeko borobila ematean, Martinek irmo erantzun zion jasanezina gertatzen zitzaioela jarrerari hori. Eta bere historia pertsonala gogoratu zion, gorritzat joa, separatistatza hartua, arriskutsu gisa eta erbestera, eta orain hau. Eta honelaxe bukatu zuen: «Susmo eta mamu gehiago ez zait kabitzen golkoan, eta banao».

Eusko Jaurlearitzaren laguntzarik ez, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek aldundiko gobernuari agindutakoa eta Nafarroako Gobernuak emandakoa izan ziren EGUNKARIAren sostengu ekonomikoa lehenengo urte haietan. EGUNKARIAK hiru urteko langa pasatu zuenean aldatu zen panorama. «Irautea lortu genuelako ira-

bazi genuen, neurri batean: irautean, kraskatzen hasi ziren beste aldeko gotorlekuak». EGUNKARIAK susmatzen hasiak ziren Jaurlearitzako eta, are, EBBko batoria pertsonala gogoratu guztiz bat Arregiren jarrerarekin.

Hain zuzen ere, 1993ko udazkenean, EBBtik iritsi zitzaizen mezuak: «Akordioa egiteko borondatea zegoen, bukaeraraino iristekoa. Zein neurritan? Hori bileren araberakoa izango zen». Arregi eta Kultura Saileko lankideak, EBBko bi ordezkari eta EGUNKARIAK bildu ohi ziren aurrerantzean. Torrealdaiak gogoratu duenez, gutxienekoak eskatuz joan ziren, hortik gora egiteko asmatan. Eusko Jaurlearitzakoak, ordea, goitik behera hasi ziren: «Titularitate pribatuarena errespetat-



Egunkaria Sortzen-en bilera, 1990eko apirilaren 7an. EGUNKARIA

tzen omen zuten, baina administrazio kontseiluan bere jendea sartzeko eskatzen zuten, kontseilu editorialean ere bai, zuzendaria eta kontseilari ordezkaria auzeratzeko beraien ere zeresana izatea: sakalderaino sartu nahi zuten, eta guk ezetz esan genuen, garbi».

HITZ EGITEKO BETI PREST Bilerak egin ahala, giroa aldatu egin zen, ordea: Torrealdai-eta sumatu zuten EBBkoek gehiago babesten zutela EGUNKARIAren jarrera, Kultura Sailekoena baino. «Azkenean, Arregik amore eman behar izan zuen, sekula ere amore emango ez zuten puntuetan eta moduan».

Urte «oso latzak» izan arren, az-

pimarratu du talde bateragileak jarrera egokia eduki zuela negoziatzaio haietan. «Konfrontazioak izan genituen, baina konposturarik ez genuen sekula galdu, ezta eskubidez zegoiguna eskatzen genuenean ere: negoziatze-ko prest agertzen ginen; betiere, gure ezaugarri propioak mantentzeko baldintzarekin».

Hala egin izan ez balute, harreman haiek beste norabide bat hartuko zuket. «Probokazioen ondorioz geure onetik atera izan bagina, joko eremua beste aldearen eskuetan utziko genuen: joko politikoan sartuko gintuzten, eta ez zen hori gure esparrua. Gu kulturatik gentozen, eta joko zelai horretan jokatu genuen beti. Irauteaz gainera, lana zuten eta fin egin genuelakoan nago».

Bide malkartsuan egin zuten aurrera EGUNKARIAK: baliabideak falta zitzaizkien hainbat alorretan, eta, gabezia horiek guztiei buru egiteko, tresna propioak sortu behar izan zituzten.

«Ez geneukan ezer: horregatik, berebiziko garrantzia zuen sena izateak». Jose Luis Aranguren Txiliku izan zen EUSKALDUNON EGUNKARIKO euskara taldeko lehenengo burua. Garai haietan, hiztegiak tomatan ateratzen zituzten, hizkika. «Ez zegoen hiztegi baturik. A letra besterik ez geneukan. Kontu horiek ahaztu egiten zaizkigu, baina B letra ez zen sekula ailegatzen: egunkarian idatzitako hamar hitzetatik bederatzitan, tomo haiek ez zituzten ezertarako balio».

Zuzentzaile bat eta itzultzaile bat. Bi lagunek osatzen zuten hasieran euskara taldea; biak, jatorriz, itzultzaileak: Txilikuk eta Beatrik Zabalondok —egun, Berría Taldeko lehendakaria—. Egune-ro, 32 orri izaten zituzten txikuntzeko. Ez zegoen etsipenerako denborarik: hurrengo eguneko

egunkaria zuzendu behar zuten, eta, lana txukun egingo bazuten, ahal zuten moduan moldatu behar. «Eskerrak itzulpengintzan hartutako eskarmentuari. Horri, eta aurretik genituen harremani: baliabide asko lortu genituen haien bidez», aitortu du.

«Gure irizpidea zen: Hautalenerako Hiztegien kontsultatu, eta hor ez badago, ahal den bezala egingo dugu». Etxe barruko irizpideak segituan hasi ziren finkatzen: 1991ko martxo-ko data duten kaiera batzuk apaletan daude gordeta, 25 urte geroago. «Kazetari guztiei banatu zitzairen hori: esango nuke Koldo Izagirre eta Josu Landa zuzelada horren atzean».

Liburuxka haiek oinarri ona dute gaur egun ere, baina badira egun begietara min egiten duten hitzak ere: *eritzia, gainerontzekoak...* Kazetari alorreko hitz asko ingelesez zeuden, zuzenean, euskarazko balioki-deen faltan. «Askotan deitzen genuen unibertsitatera, jakintsuak haiek zirela-eta erabakiren bat hartu beharko zutela esanez. Ez zuten inoiz erantzuten. Hala, behin [Andres] Gostinekin jarri nintzen egun batean, eta euskaratu egin genituen».



1991ko azaroko irudia: EGUNKARIKO kazetariak Lasarteko erredakzioan lanean. AITOR BAYO

Besterik ezean, etxean egin behar

Langileen sormen eta gaitasunek atera zuten EGUNKARIA aurrera: lortu ezin zituzten edo falta zituzten baliabideak eurek sortuz

EIA AUTONOMIA
EUSKAL SINDIKATUA EKONOMIKOA, SINDIKALA, POLITIKOA
ela.eus

SA. CALCOSA
GALDARAGINTZA ETA ERAIKUNTZAK
Errota industr.2 - 3. pabilioia • ANOETA
Tel.: 943-65 24 40 • Faxa: 943-65 44 73
www.calcosa.com • calcosa@calcosa.com

Egunerokoa bi lagun soilik aritu arren, bazuten sare bat, eta hor bilatu zuten laguntza. Era-kunde batean eta bestean lan egiten zuten itzultzaileak ezagutzen zituzten, eta haien bidez lortu ahal izan zituzten publikatu gabeko hiztegi asko, administrazio, politika edo nazioarteko gaietarako erabilgarriak zirenak.

Horrez gain, gogoan du Txilikuk nola banatzen zituzten egunkariko orriak zenbait lagunen artean, haiek zuzenketak

egiteko. Hasiera hartan, Elhuyarrek Iñaki Azkunek eta UZEIko Jose Antonio Adurizek eta Jabier Agirrek lagundu zuten gehien, Txilikuk gogoratu duenez. Ez ziren bakarrak: maiz jasotzen zituzten udaletako euskara teknika-rien deiak: aholkuak eman eta zuzenketak egiten zituzten. Eta, horietaz gainera, eskatu gabeko zuzenketa gehiago ere jasotzen zituzten: «Herri honetan, denak filologoak izan gara eta...».

Errotatiba propiorik gabe, en-

tregak oso goiz izaten ziren, oro har, baina zenbait saili bereziki eragiten zien; kulturari, esaterako. Gorka Arrese izan zen talde horretako burua, eta, eguneko gauzak egiten zituzten arren, orriak goizean entregatu behar-rrak lanak aurrez prestatzera behartu zituen. Pisu handia zuen kultura sailak, gainera. «Egunkari baterako ari ginen idazten, bai-na, aldi berean, astekari batean ohikoak ziren formulazioak erabiltzen genituen». Hasier Etxebe-

bildu EUSKARAra, bildu INDEPENDENTZIAra
eman botoa **ehbildu**
Zorionak BERRIA, 25 urte!

Aratzko zuzendaburua, Esteko zuzendaburua, Gasteizko zuzendaburua, Nafarroako zuzendaburua

rriaren piezak aipatu ditu. «Lan handia egin zuten, eta gauza oso bereziak egiten zituen: kolaboratzaile oso aktiboa izan zen». *Argia*-tik zetorren Arrese, eta gogoa du nola astekarian ikasitakoak aplikatzen zituzten euskarazko kazetan. «Hasieran ikaratuta geunden, baina Juan Luis Zabala, Alberto Barandiaran, Lorea Agirre eta Gorane Agirre bezalako kazetariak ondoan izanda, ez genuen arazo handirik izan».

KATEAREN BEGI GUZTIEN GARRANTZIA

Egunkari bat katean egiten den lana da.

Eta kate horrek ondo funtzionatzen zuela bermatzea zen Pilar Mendibilen lana. «Kate horretan zenbat eta geroago parte hartu, orduan eta azkarrago lan egin behar duzu: errotatiba lana izugarria da, baita banatzaileena ere». Muntatze mahaian hasi zen lanean, euskarazko egunkariak sei hilabete baino gehiago ez zuela iraungo esaten zenean. Handik gutxira, Bartolo Makazaga *Argia*-ko langilea hil zela-eta, Josu Landa EGUNKARIAKO produkzioburua zena *Argia*-ra itzuli zen, eta Mendibil izan zen aurrerantzean produkzioburua.

Mendibilek ez dauka ahazteko informatikarien lana. «Izugarria izan da egin duten lana». Sistema digitalizatzen egindako lanagatik dio, baina baita lekualdatze bakoitzean egindakoengatik ere—Mundaizetik Lasartera, handik Andoainera, itxierak behar tutako aldaketa guztiak...—. Ordenagailu bakoitza banan-banan jarri behar zuten martxan. Artxiboak, altzariak... dena garratzean eraman behar zen: «Lekualdatzeak beti guk egiten genituen, hau da, langileok. Gogoa dut nola ikusi nuen behin Iñaki Uri besoak ubelduz beteta».

Informatikariek, euren lanaren bidez, guztiz aldatu dute kazetarien jarduna. Egun, bakoitzak bere ordenagailua du, ediziorako beharrezko dituen tresna guztiak. Orria osatutakoan,



Josu Landa, EGUNKARIAren lehen zerbakia prestatzen.

AITOR BAYO



EGUNKARIAren Andoaingo erredakzioa, 1996ko azaroran.

EGUNKARIA

✓ **PILAR MENDIBIL:** «Lekualdatzeak beti guk egiten genituen, hau da, langileok. Gogoa dut nola ikusi nuen behin Iñaki Uri besoak ubelduz beteta»

✓ **OSKAR ANGULO:** «Tresna xumeak dira, baina balio izan digute 25 urte hauetan aurrera jarraitzeko. Ezin da esan sekulakoak direnik, baina oso praktikoak dira»

klik gutxi batzuekin pasatzen diote orria euskara taldekoei, eta haiek, zierrekoei. Hasieran, baina, ez zegoen edizio digitalik, ezta baliabide hobeak lortzeko dirurik ere.

Premiak ekarri zituen hobeak. Testuak kazetariak berrek maketatze beharrez jabetzean, merkatuan zer aukera zeuden aztertzen hasi ziren, Oskar Angulo informatika taldeko bu-

ruak azaldu duenez. Bi aukera ziztuzten: hedabide askok erabiltzen zuten sistema zentralizatua, «diru asko balio zuena»; edo sistema deszentralizatua. «Bigarrena aukeratu genuen, zeuzkan eragozpen guztiak: hori egokitzen zen ondoena gure poltsikora». Horren alde egin zuten, pentsatuak besteak zituzten abantailak beraiek sortuko zituztela gero.

Eta hala egin zuten. Lehenbizi, zierreko sistema egin zuten. Orriak koloreen bidez erakutsiz, bakoitza non den adierazten du: zuzentzeko zain ote dagoen, zuzentzen, filmatuta, edota errotatibara bidalita. Geroago etorri ziren kazetarien lana are gehiago erraztuko zuten planilloa eta publizitate pautak, esaterako. Eta, harro egoteko moduko lana egin

arren, umil hitz egin du Angulok: «Sentsazioa gazi-gozoa daukat: alde batetik, ikusten duzu egin duzuna ez dela borobila, zerbait falta zaiola; bestetik, ordea, egunerokoari aurre egiteko balio digu. Tresna xumeak dira, baina erabilgarriak izan dira 25 urte hauetan. Ezin da esan sekulakoak direnik, baina oso praktikoak dira».



BILBOKO EUSKALTEGIAK

Talleres
MITXELENA, S. COOP.

Zorionak!





Guardia zibilek eta haien patrolek bete zuten, 2003ko otsailaren 20 hartan, Martin Ugalde kultur parka

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Zakua bete bidegabekeria

Guardia Zibilak EGUNKARIA itxi zuen 2003ko otsailaren 20an

Batere frogarik gabe, ETako kide izatea leporatuta, EGUNKARIAREN arduradunak atxilotu, inkomunikatu eta torturatu zituzten.

Xabier Alegria, Txema Auzmendi, Inma Gomila, Luis Goia, Fermin Lazkano, Xabier Oleaga, Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealda, Iñaki Uribe eta Pello Zubiria. 2003ko otsailaren 20an Guardia Zibilak Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz egindako polizia operazioan atxilotu zituzten hamarrak dira. ETako kide izatea leporatu zieten, horretarako frogarik izan gabe, zazpi urte aurrerago ateraz sententziaren arabera. Errugabetzat jo zituzten, baina atxilotu, inkomunikatu eta torturatu egin zituzten. Idatzita geratu zen, gainera, euskarazko kazeta

bakarra ixteko nahiko arrazoi ez zegoela, baina itxi egin zuten. Indarrez hilarazi zuten EUSKALDUNON EGUNKARIA.

Atxilotuta batzuk, *langabezia* estreinatu berrian beste batzuk, amesgaizto haren parte bihurtu ziren EGUNKARIako langileak. Guardia Zibila etxera joan zitzaionean, nekez irudika zezaketen Xabier Oleagak EGUNKARIAGatik zela. Eta EGUNKARIAGatik zela jakin zuenean, honela esan zion emazteari: «Lasai egon, bihar edo etzi etxean izango naiz». Arropa dotoreak janzteari ekin zion, hurrengo egunean, espetxetik ateratzean, itxura ona izateko, «eta ez delinkuente batena». Baina guardia zibilek ezetz, janzteko arropa arina, luzerako zela.

Donostiako Loiolaetxean, ohera sartzeaz zegoen Txema Auzmendi; ateko txirrinak jo zuten, 01:00 aldera. Sukaldera

✓ **XABIER LEKUONA:** «Guardia zibil mordoia eta patrol handiak ikusi nituen, baita Iñaki Uribe eskuburdirak jarrita barrura nola sartzen zuten ere»

✓ **TXEMA AUZMENDI:** «Kide batzuk eta gurekin bizi ziren presondegitik etorritako lagunak ere han zeuden: egoera sinesgaitzean, elkarteko burua atxilotu zuten»

✓ **ENKO BIDEGAIN:** «Delegaziora joan nintzen, urduritasun handiz, nahiz ez nekien zer egingo genuen. Genekien bakarra zen ez genituela ohiko lanak egingo»

eraman zuten, eta hura atxilotzeko agindua zutela esan zioten bi guardia zibilek. «Jesuitak eta elkarteko kide laiko batzuk zeuden artean, baita gurekin bizi ziren presondegitik etorritako zenbait lagun ere. Egoera sinesgaitz hartan, elkarteko burua atxilotzera etorri ziren. Nola uler-tu gertatzen ari zen hura?». Beste zortzi lagunak bezala, Madrilerako bidea hartu zuten Oleagak

eta Auzmendik. Miaketak, berriz, ez zituzten soilik EGUNKARIAN egin: Ikastolen Elkartean, Elkarraren eta *Jakin*-en egoitzetan sartu zen Guardia Zibila.

Kanpoan ere ez zen giro. Ordu txikietan jasotako telefono dei baten bidez jakin zuten batzuek zer gertatzen ari zen; goituean besteek, irratiko albisteak entzunez. Beste batzuek lekuko gisa aritu behar izan zuten mia-

ketetan; Alberto Barandiaranek, kasurako. «Etxera etorri ziren guardia zibilak 04:00etan, txirrina joka. Imajinatu zalaparta eta harridura». Barandiaranenera joandakoak kaleko jantzita zeuden. Hura zen Iruñeko delegazioburua, eta beraiekin joateko eskatu zitoten, atea irekitzeko, behera botako zutela bestela. «Miaketa hasi zenerako, neska-lagunak Imanol Muruari deitu zion, eta gertatukoak kontatu zion: hura erdi lo zegoen, eta ez omen zion kasu handirik egin. Baina handik bost minutura, esnatu zenean, deika hasi zen... Eta inork telefona hartu ez».

Luis Karlos Garcia *Txarrik*-k, Gasteizko delegazioko buruak, ez zuen sinisten kaleko jantzitako guardia zibil haiek kontatzen ziotena. «Zergatik sinetsi behar nien ezer nik haiei?». Nahiz izanez gero, Sansomendiko egoitzara deitu eta egiazteko esan zioten haiek, eta horixe egin zuten Txarrik: «'A' Bada, bai», esan zidan telefonoaren bestaldean zegoenak. Halako operazio bat hamar minututik behin egiten duenaren tonuarekin».

Xabier Lekuona zuzendariordea ere telefono dei batekin esnatu zen: Barandiaranen etxera sartu zirela eta Iruñeko ordezkaritza miatzen ari zirela. «Telefono hartu eta Martxelori deitu, Iñaki Uriari deitu, Martxelori, Uriari... Ordu txikietan deiak egin eta inork telefonorik hartzen ez duenean, malok». Usain txarrak gidatuta, Martin Ugalde parkera jo zuen Lekuonak. «Parkeak oso argiztapen ona dauka, eta eraikina zuri-zurria da: han ikusi nituen guardia zibil mordoia, patrol handiak. Autoa ingurua aparkatu, eta Iñaki Uribe eskuburdirak jarrita barrura nola sartzen zuten ikusi nuen. Malo-malo».

Bigarren lerroko zuzendari-tzakoei deitu, elkartu eta alarma jotzen hasi ziren: erantzuna pres-tatu behar zuten.

BAIONAKO DELEGAZIOA, IREKITA EGUNKARIA-ren Andoain-go, Bilboko, Iruñeko eta Gasteizko ordezkaritzak itxita zeuden: ez, ordea, Baionakoa. Irratian entzun zuen albistea Eneko Bidegain hango delegazioburuak, esnatzean. «Susto handia izan zen, eta dena hankaz gora zihoa sententziarekin hasi nuen egun hura. Baionako delegaziora joan nintzen, urduritasun handiz, nahiz ez nekien zer egingo genuen. Genekien bakarra zen egun horretan ez genituela ohiko lanak egingo».

Ez berehala, baina Bidegainek

Mobilizazioak, elkartasuna, hitzaldiak

2003ko otsailaren 22an, manifestazio arrunt jendetsua egin zen Donostian EGUNKARIAREN alde. Elkartasun mezuak milaka iritsi ziren, eta gertatutakoen nondik norakoak azaltzeko hamaika eskaera jaso zituzten, Euskal Herrian bertan eta nazioartean. Espainian, esaterako, Zaragozan, Madrilan, Kanarietan eta Asturiasen ibili ziren, besteak beste, hitzaldiak ematen. Herrialde Katalanetatik jasotako babes soziala, instituzionala eta hedapen mediaticoa izugarria izan zen: hura izan zen berona. Horren erakusgarri, euskarazko egunkariaren aldeko Plataforma Per Egunkaria taldea. Ez ahaztekoak dira jasotako babes eta elkartasun mezu eta keinu guztiak.

gogoan du nola 11:00 inguruan hasi zen telefonoa etengabe jotzen. Eskegi eta berriz hartu. Etengabe. «EITBkoek deitu ziguten, grabatzera pasatu nahi zute. Etorri ziren, grabatu zuten, eta ia-ia ez ginen konturatu ere egin». Helbide elektronikoa ere martxan zuten, eta mezu andana jaso zuten: hainbeste, blokeatu egin zitzaion.

Ezin besoak gurutzaturik gel-ditu, prentsaurreko bat antolatuz zuten arratsalderako, gertatutakoa salatzen, ezagutarazteko. Andoango lankideekin telefono finkoaren bidez hitz egin ohi zuten, baina egun horretan zaila izan zuten elkarren arteko komunikazioa. Andoainen, berriz, prentsaurrekoarena jakin zutenean, azken albisteak bidali zizkieten, haiek erabiltzeko.

Prentsaurrekoa amaizuta, Donostiara etorri ziren zenbait lagun, elkarretaratzera. «Behar

hori bagenuen lankideekin egoteko, gure min hori azaleratzeko, mina handia baitzen, eta horrelakoetan zure kideekin elkartzea beharrezkoa egiten zaizu».

ERANTZUNA, PROTESTAK, EGUNERO

Egin-en itxiera gertutik ezagutu zuten, EGUNKARIAREN erre-dakzioan egin baitzuten 1998an Euskadi Información egunkaria. Haien esperientzia irajinatu zuten, inoiz halako itxiera bat izanez gero, zer egin behar zuten eta zer ez, Lekuonak azaldu duenez. «Inoiz burutik pasatu ere egin gabe» EGUNKARIA itxia benetan gerta zitekeela. «Lehenengo premisa zen erantzun bat ematea, eta hurrengo egunean gure egunkaria kioskoetan egotea. Ez gintuztela isilduko».

Hala, lanak banatu zituzten: batzuk, erredakziora; beste batzuk, erantzuna prestatzera; eta besteak, protestarako materiala egitera. A, B eta C planak eginak zituzten egunkari berria hurrengo egunetan etxe eta kioskoetara ailegatzeko: batek huts eginen gero, hurrengo jarriko zuten martxan. Egunkari berria non bota, Guardia Zibilak oztopatu gabe: hor zegoen koska.

Behin hori lotuta, banaketa egitea zen hurrengo pausoa. Lorenzo Rojo banatzailearen atzetik jarri zuten Jagoba Manterola argazkilaria: Rojo geratzen bazuten, jakinarazteko. Barandiaran bera ere errotatibara joana zen, dena ondo zihoala baieztatzeko, eta, hala izan ezean, B plana martxan jartzeko. Guardia zibilak agertu ere hara agertu ziren, errotatibara, eta gogoan du Barandiaranek nola ezkutatu ziren mahai baten azpian. «Errotatibakoek ukatu egin zieten guardia zibilei han EGUNKARIA botatzen ari zirela, eta handik bidali zituzten». Gaupasa hark merezi izan zuen, azkenean: EGUNERO argitaratu eta irakurleen eskuetara ailegatu zen. Ez zuten lortu euskarazko egunkaria isiltzea.



Langileak Martin Ugalde kultur parkean, errotatibatik iritsitako BERRIAREN lehenengo aleak eskuratzen. J. C. RUIZ / ARP

Lau hilabeteren ostean, BERRIA sortu zen

2003ko ekainaren 21ean iritsi zen lehenengo zenbakia kioskoetara eta etxeetara

Sendo eta osasuntsu zegoela itxi zuten EGUNKARIA, eta indar horri esker jaio ziren EGUNERO lehenbizi eta BERRIA gero. Herriarregandik laguntza masiboa jaso zuen euskarazko kazeta berriak.

Bazegoen gorputza, gorputz sendoa, indartsua. 2003ko otsailaren 20an kolpe latza hartu zuen EGUNKARIAREN lantaldeak, baina amore ematea ez zen sartzen langileen buruan. Otsailaren 21ean, era batera edo bestera, euskara hutsezko egunkariak

ezin zuen hutsik egin kioskoetan. Eta ez zuen huts egin.

Arriskua beti zegoen presente; argitalpenak bahituak izateko beldurra ere hor zegoen. Baina aurrera egin behar zen, eta egin zuten. Aurrera egin zuten, horretarako nahiko indar bazutelako: osasun egoera onean. «Inoizko onenean» zela itxi zuten EGUNKARIA, arduradunen esanetan. Eta, beraz, mina barruraino heldu bazitzaion ere, EGUNERO egin zuten lehenengo, eta BERRIA gero, errautsetatik birsortutako Fenix hegaziaren moduan. Itxi eta lau hilabetera heldu zen BERRIA, 2003ko ekainaren 21ean.

BERRIA aurrera!

Herritar, erakunde eta langile askok hilabete luze eta gogorretan egindako lanaren ondorioa daukazu eskuetan, irakurle. Nor bere esparruan, baina helburu bakar batekin: ahalik eta azkarrena egunkari sendo bat jartzeko euskaldunon zerbitzuan. Mila esker egindako ahaleginagatik eta, modu batera edo bestera, eskainitako laguntzagatik.

Eguma, EUSKALDUNON EGUNKARIA eta EGUNEROren ondoren, BERRIA sortu da, bere orrietara etorri nahi duten pentsamolde eta jardunbide guztietako euskaldunen topaleku izateko asmoarekin; gaur ez daudenak, baina, bihar egongo direlakoan. Hori daukagu buruan proiektu berri honetan lanean hasitako guztiok, eta hori izango da jarraituko dugun eskuliburua. Bide luzea dauka oraindik egiteko eguneroko euskarazko prentsak, baina gero eta erosle eta irakurle gehiago edukitzeak indarra ematen digu, hobetu beharrekoa hobetuz, aurrera egiteko. Euskarazko komunikabide sendorik gabe ezinezkoa izango da Euskal Herriko komunikazio esparrua eraikitzea, eta hori egin ezean zaila izango du etorkizuna gure herriari; are gehiago kontuan hartuta komunikabideek gure esparru soziopolitikoan daukaten garrantzia.

Zuetako asko azken hilabeteotan bildu zarete euskarazko eguneroko prentsarari; egin duzuen ahaleginaren parekoa da zuekin, eta lehenagotik gurekin zeudenean, hartua daukagun konpromisoa. Emaguzue aukera frogatzeko, guk zuei eta zuek zeuon buruari, aukera zuzena egin duzuela.

BERRIAREN 1. zenbakiko mezua

Elorrio zure bidean

Ongi etorri !!

Elorrio ko udala

Itxieraren bigarren atala, ekonomikoa

Euskara hutsezko kazeta itxi eta zortzi hilabetera egin zuten bigarren operazioa

Zortzi lagun atxilotu zituzten 2003ko urriaren 16an, 1998-2001 bitartean diru laguntza publikoen iruzurra eta diru kontuen faltsutzea egotzita.

Kronologikoki, geroago etorri zen EGUNKARIAREN auzi ekonomikoa, baina lehenengo operazioaren barruan zihonan hasieran. «Gerora ikusi izan diren dokumentuengatik, badakigu Guardia Zibilak operazio zabalago

bat planteatu ziola epaileari, [Martin Ugalde] parkea barruan sartuta. Baina epaileak EGUNKARIARA mugatu zuen, oso argi ez dakigu zergatik», nabarmendu du Joanmari Larrartek.

Operazioa egin eta 11 urtera itxi zen, azkenean, atal ekonomikoa, eta amaitu zen EGUNKARIAREN auzia. Larrartekin batera, Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Armando Hernandez, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune eta Xabier Legarra atxilotu zituzten 2003ko urriaren 16an. Horietaatik bi baino ez zituzten



Martin Ugalde kultur parkean elkarretaratze bat egin zuten bigarren operazioko atxilotetako egonberrian.

inputatu gero, Sors eta Sorozabal, beste sei lagunekin batera: Joan Mari Torrealda, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Fernando Furundarena, Ainhoa Albisu eta Begoña Zubelzu.

Gutun baten bidez jakin zuen Albisuk inputatu zutela, 2003ko operaziotik hiru urte eta erdira, 2007an: «Oso arraroa zen: hiru urte pasatuta, ez geneukan ahaztuta, baina ez genuen uste inputazio gehiago izango zirenik». Zigor eskaera handiak egin zizkieten, gainera. «Zifrak, eurotan, urteetan, esajeratuak. EGUNKARIAN lan egindako urte bakoitzeko gehiago eskatzen zuten».

Euskal kultur gintzaren industria ETARI lotua zegoela defendatu zuten guardia zibilek, eta horren aitzakian egin zuten bigarren operazioa, Sorsen arabera: «Haien tesia da euskara balio bat dela, eta euskara babestu behar dutenak instituzioak direla. Instituzioetatik at dagoen guztia ETAKoa da, eta, beraz, hortik sortzen den industria kultural hori ETAREN zerbitzura dago». Horren arabera, Martin Ugalde parkeak ETAK jarria zen, nahiz hori baiez-

tatzeko argudioirik ez zuten aurkeztu. «Datuak daude», izan dai-teke'... Halako terminoak erabili zituzten txostenean».

Euskal kultura eta horren industria «ahuldu eta estigmatizatu» nahi izan zuten, enpresa horien jarduna ETAREkin lotuta. «ETAK dirua dauka», esaten zuten. 'Eta diru hori eduki deza-ke inbertituta, edo gordeta. Inbertituta baldin badauka, ikus dezagun zein enpresa dabilzaten euskal kulturaren industrian, eta horiek ETAKoak izango dira. Aurkituko ditugu gero hori frogatzeko argudioak», dio Sorsek. Tankera horretako argudioekin gauzatu zuten bigarren operazioa, 2003ko urrian. «Guk garbi geneukan hasieratik hipotesi haiek induzituak zirela, eta basakeria horrek ia 200 langile utzi zituen lanik gabe».

BABES FALTA, SUSMOAK

Gizarteetako elkartasuna eta babesa oso gogoan du Sorsek, baina faltan sumatu zuen sektore ekonomikoko eragileak euren alde agertzea: «Enpresa-

riak ote ginen edo ez susmoetan jarri zen. Beste enpresarietara gogorra izan zen».

Jarrera mesfidatia ere jaso zuten bankuen aldetik; esaterako, BERRIARENTZAKO errotatiba erosi zutenean, Larrartek gogoratu duenez: «Abal bat jarri behar zen; ez zen diru askokoa, hori baino diru gehiago bildua genuen BERRIA egiteko, baina inongo Bankuk ez genuen lortu jartzea. Dirutan jarri behar izan zuten BERRIAK».

«Izugarrizko inpotentzia sentitzen duzu: badirudi ez duela ezertarako balio egin duzun guztia», salatu du Sorsek. Eta kaltea ez da soilik pertsonala, inguruan eragiten baitu zuzenean: «Gidatzen duzun enpresan, familian... inguru guztian». Ezer txarrik egin ezaren kontzientzia lasaia zuten, baina ezin jakin zer gertatuko zen azkenean. «Gogoratzen naiz 18/98koak kartzelara bidali zituztenean...», azaldu du Albisuk. «Guk garbi geneukan ez genuela ezer txarrik egin. Beste zer bait lortu nahi zuten haiek: lana zikindu nahi zuten».

PRESKIPZIOA, AUZIAREN ITXIERA

Absolutzioa etorri zen lehenengo, 2010eko apirilaren 12an. Akusazioak funtsik gabeak zirela eta, EGUNKARIAK ETAREkin ez zuela «inolako harremanik» jaso zen sententzia horretan. Atal ekonomikoan inputatuak izan zirenei nolabaiteko lasaitasuna eman zien hasieran. «Beti gerta zitekeen zer bait, baina jada espeterik ez genuen espero», gogoratu du Albisuk. «Gure atala ekonomikoa zen, baina politikarekin lotuta zih-

**Zorionak egunkaria!
eta
Zorionak euskaltzale guztioil**



Hemen GARBINETAN www.hemen-garbiak.com

Zuri konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa erokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidagoak, garajeak
- Lokal konbertzuzak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Erokin instituzionalak, eskolak, ikastetxeak, ambulanzioak, eta abar.

943 71 48 45

ezarri
mosaikoa

Zubierreka Industrialdea, 58
20210 Lazkao
Tel: 943.16.41.40 • Faxa: 943.88.40.66
www.ezarri.com • ezarria@ezarri.com



BERRIA



JOXE MARI SORS: «Izugarrizko inpotentzia sentitzen duzu: badirudi ez duela ezertarako balio egin duzun guztiak»

BEGOÑA ZUBELZU: «Guk garbi geneukan ez genuela ezer txarrik egin. Beste zerbañ zen haiek zer lortu nahi zuten: gure lana zikindu nahi zuten»

an: atal politikoan absoluzioa emanda, uste genuen eskaerak jaitsiko zituztela, baina mantendu egin zituzten».

Lau urte gehiago behar izan ziren EGUNKARIAREN auzia guztiz ixteko. Absoluzioa eman ostean, urte hartako maiatzaren 5ean Espainiako Auzitegi Nazionalako zigor salako epaileak jakinarazi zuten epaitegi horrek ez zuela epaituko auziaren atal ekonomikoa, eta kasua Donostiako epaitegira igorriko zuela. «Delitu terroristen» zantzurik ez zegoenez, atal horretan izan zitekeen delitu bakarra ustezko zerga iruzurra zen: hala, Gipuzkoako epaitegiaren eskuduntza zen hura epaitzea, EGUNKARIAREN egoitza Andoainean zegoelako.

Auzibidean ustezko kaltetu ziren erakunde publikoek uko egin zioten auzian parte hartzeari, eta, gainera, deliturik ez zela egin azaldu zuten txosten sendo batzuen bidez. Batetik, Eusko Jaurlaritzak bi txosten egin zituen, emandako diru laguntzak legezkoak zirela azpimarratuta: 2012an Patxi Lopez (PSE-EE) lehendakari zeneko Kultura Sailak egin zuen bat, eta bestea Iñigo Urkulluren (EAJ) gobernu nuko Ogasun eta Finantza Departamentuak, 2014an. Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuak ere esan zuen EGUNKARIAREN partetik ez zela diru kontuen faltsutzerik izan. «Eta, hala eta guztiz ere, fiskalak aurrera egiteko esan zuen. Parafernalikoa da.

Kronologia laburtua: 'EGUNKARIA auzia'

2003. URTEA

Otsailak 20. EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi eta hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, Juan del Olmo Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz: Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uribe, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Fermin Lazkano, Luis Goia eta Inma Gomila.

Otsailak 21. EGUNKARIKO langileek *Egunero* atera zuten. BERRIA atera artean iraun zuen, 2003ko ekainaren 20ra arte.

Otsailak 25. Inkomunikatuta egon ostean, Torrealdai, Uribe, Oleaga, Auzmendi eta Alegria baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuen epaileak. Aldiz, Otamendi, Gomila, Lazkano eta Goia aske utzi zituen, bermea ordainduta. Zubiriari 72 orduz luzatu zion inkomunikazioa.

Urriak 16. Martin Ugalde kultur parkearen eta EGUNKARIAREN enpresa taldearen aurkako operazioa egin zuen Guardia Zibilak, Del Olmok aginduta, eta zortzi lagun atxilotu zituen: Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Armando Hernandez, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune, Joanmari Larrarte eta Xabier Legarra izan ziren atxilotuak.

Urriak 20. Eneko Etxeberria EGUNKARIAREN enpresako abokatua atxilotu eta inkomunikatzeko agindu zuen Del Olmok.

Urriak 21. Arrizabalaga, Diez, Etxeberria eta Hernandez libre geratu ziren, bermerik ordaindu gabe. Sorozabal, Sors, Azkune, Larrarte eta Legarra, berriz, hamabina mila euro ordainduta.

2004. URTEA

Abuztuak 2. Uribe izan zen EGUNKARIAREN auzian aske geratzen azkena. 2004ko abuztuaren 2an atera zen, 450.000 euroko bermea ordainduta.

Azaroak 4. Auzipetze autoa kaleratu zuen Del Olmok: Torrealdai, Uribe, Auzmendi, Otamendi, Zubiria, Oleaga eta Alegria auzipetu zituen instrukzio epaileak. Joxemi Zumalabe EGUNKARIAREN sortzaileetako ere bai, hura hilik egon arren.

Abenduak 25. Auzipetzeak berretsi zituen epaileak, Zumalaberena salbu.

2009. URTEA

Abenduak 15. EGUNKARIAREN epaiketaren hasiera, Espainiako Auzitegi Nazionalan.

2010. URTEA

Apirilak 12. Espainiako Auzite-

gi Nazionalak absolbitu egin zituen Torrealdai, Uribe, Auzmendi, Otamendi eta Oleaga EGUNKARIAREN itxiera kasuko bostak, haien kontrako frogarik ez zegoela ebaztuta. Beraz, absolbitu egin zuen EGUNKARIA.

Maiatzak 5. EGUNKARIAREN auzi ekonomikoa Donostiako epaitegira igorri zuten.

2011. URTEA

Abenduak 26. Auzi ekonomikotik kanpo utzi zuten behin betiko Dignidad y Justicia.

2012. URTEA

Urriak 16. Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainia kondenatu zuen, Otamendiren tortura salaketak ez zituelako behar bezala ikertu.

2014. URTEA

Ekainak 4. Epaileak auzi ekonomikoa artxibatzea erabaki zuen, ustezko delituak preskribatuta zeudela irizita.

Ekainak 17. Gipuzkoako Fiskaltzak auzi ekonomikoa apelazio helegitea aurkeztu zuen Gipuzkoako Lurralde Auzitegian ekainaren 11n —hilaren 17an jakin zen—.

Urriak 14. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak itxi egin zuen auzi ekonomikoa.

Hori hala izan zen Madrildik agindu hori bidali zutelako», gogoratu du Sorsek.

Azkenean, inputatuen errugabetasuna frogatu gabe itxi zen kasua, preskripzioarekin. Atal ekonomikoa preskripzioarekin amaitu zen EGUNKARIAREN auzia, 11 urte luzeren ondoren. «Ez genuen horrela bukatzea nahi, baina zer egingo genuen? Segitu? Zertarako? Urte guztioan ibili naiz justizia zer den galdezka, eta hori hemen ez da existitzen».



**Euskaraz izateko,
informatu euskaraz!**

Sormenak behar zuen aterpea

EUSKALDUNON EGUNKARIAk babesa eman zien euskarazko kultur sortzaileei. Beren lanak nonbait oihartzuna bazuela sentitu zuten. Ez zeudela bakarrik ibilbide horretan.



Lazkaoko (Gipuzkoa) Maizpide euskaltegiko ikasleak BERRIA irakurtzen.

GALDERAK

1 Zer ekarpen egin dio EUSKALDUNON EGUNKARIAk euskal kulturari?

2 Nolako izan da EUSKALDUNON EGUNKARIAk zure arloan egindako ekarpena?

[Antzerkian, literaturan, musikan, zineman, bertsolaritzan edo artean].

IHINTZA ELUSTONDO



ANDER LIPUS
AKTOREA

1 Euskal imajinarioan bizi gare-nok beharrezkoak ditugu halako espazio libreak, eskizofreniarik gabekoak. Ni markinarra naiz, eta sentitu nuen euskarazko isla txiki hori bat-batean Euskal Herrira zabaltzen ari zela.

2 Nik antzerkia euskaraz soilik egiten dut, eta EUSKALDUNON EGUNKARIAk ere hau hori hartu zuen. Euskarazko antzerkia ez zuen bigarren mailan uzten. Euskaldunok ez baditugu egiten hau horiek, nork egingo ditu?



MIREIA GABILONDO
AKTOREA

1 Sortu zenean hain beharrezkoa zen euskarazko egunkari bat, nik uste dut orain ja ohitu egin garela. Eta oso gauza ona iruditzen zait. Atzera begirata, pentsatzen jartzen naiz: «Nola bizi ginen?». Bada, gaizki.

2 Oraindik BERRIA begiratzen dut zer elkarriketa dauden, zer liburu atera diren, zer disko egin duten jakiteko. Kultura zabaltzeko oso modu ona da egunkaria oraindik ere. Niretzat, eta jende askorentzat, erreferentzia bat da.



ITXARO BORDA
IDAZLEA

1 Ikusgarritasuna ekarri zion, gai eta kultura alorrek oro agertzen zitzaizkigun sail berean, izan Iparraldeko ala Hegoaldeko. Uste dut, halaber, hizkuntza berri bat sortu zela hor kulturaz hitz egiteko orduan.

2 Literatura, poesia ez bazen, betidanik haurride pobrea izan da Euskal Herrian. EGUNKARIArri esker, euskarazko literaturarekiko harremana samurragoa egin zen, idazleak irakurleei hurbilago jarri.



KIRMEN URIBE
IDAZLEA

1 Euskara eguneroko bihurtu zuen. Idazle batentzat euskaraz irakurtzea eta bere hizkuntzan trebatuz joatea oso garrantzitsua da. Euskara jasoa erabiltzen zuen, eta gero maila hori igaro egiten da idazlearen eskura.

2 Gure belaunaldia EGUNKARIArekin hasi da. Harkaitz Cano, ni eta beste egile batzuk hori hasi ginen idazten. Zutabeak idatziz ikasi nuen idazten, literatura egiten. Gainera, irakurleenganako zubi hori egiten duzu.

Eskaintza zure neurrira:

egunero, astean bitan, astean hirutan, larunbatean eta on line.

- 4. maila
- Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Idazmena
- Mintzamena



ILAZKI.EUS
ilazki@ilazki.eus

Konstituzio plaza, 5 • 20003 DONOSTIA • 943-42 49 10

KATILU

KATILU jatetxea

Azoka plaza • LEGAZPI
t. 943-08 11 98 • katilu@katilu.es • www.katilu.es



IMANOL OTEGI



AMETS ARZALLUS BERTSOLARIA

1 Euskal kultura zer ote den definitzean ez gara gure artean ados jartzen askotan, baina EGUNKARIA euskarazkoa denetik, euskal kultura euskarazkoa dela defenditzen duenak eguneroko berme bat baduela iruditzen zait.

2 Bertsoa, bere bat-batekotasunaren kondizioagatik, ez da oso eramangarria prentsara. Baina EGUNKARIA zabaldu dezake bertsoarentzat espazio kritiko bat, eta hor ikusten dut bertsolaritzari egin dion ekarpena.



MAIALEN LUJANBIO BERTSOLARIA

1 Lur bat eman zion, orube bat, erdarazko medioek, medio elebidunek eta euskarazko medio publikoak ordura arte eskaintzen zizutenen aldean, bestelako oinarri batzuen gainean kultur ikuspegi bat eraikitzeko.

2 Bertsolaritzari egin zion jarraitpena gorabeheratsua izan zela esango nuke, baina EGUNKARIAK testuingurua eman zion. Bertsoak berez ibiltzen duen lurra eta arnasten duen atmosfera paperaren ere aurkitu genuen.



ASIER MENDIZABAL ARTISTA

1 Beti izan dut irudipen bat: testuinguru kultural bat jarraitu baino gehiago, EGUNKARIAK testuinguru bat sortu egin zuela. Euskal irakurleria bateratu batentzako erreferentzia bilakatu beharrak halabarrez sortu zuten hori.

2 Hizkuntzaren urgentzien inguruan sortutako proiektua izaki, kultur eredia ere hizkuntzak determinatzen du. Horrek zaildu zuten, hasieran, ikusizko espresioak proiektu kultural horren parte gisa ulertzea.



ANARI ALBERDI MUSIKARIA

1 Euskal kultura den konstruktore abstraktu hori konkretatzen lagundu du. Eraiki egin du, edo eraikuntzarako aldordioak ezarri ditu. Eta elementurik garrantzitsuenak, Sarririk dioen moduan, euskara eta territoria izan dira.

2 Ez dago esan beharrik euskaraz abesten edo idazten duenari euskaraz entzuna edo irakurriaziteak zer ematen dion, eta, Pernandoren egia bat dirudien arren, hau ez dugu beti (izan) euskaraz sortzen dugunok.



MIKEL URDANGARIN MUSIKARIA

1 Hutsune bat bete zuen. Euskararak normalizazioa behar du gure herriak behar duen bezala, eta euskarazko egunkariak sekulara aldaketa ekarri zigan gure bizitzetara. Normalizaziorako bide horretan pauso handia izan zen.

2 Euskaldun musikariontzat arnas poltsa bat izan zen. Sentsibiltate berezi bat nabaritu zen kultura jorrazteko, bai kazetarien aldetik, eta bai EGUNKARIAREN animoan. Argi dago kultura apustu bat izan zela.



ASIER ALTUNA ZINEMAGILEA

1 Euskarazko egunkaria ezinbesteko erreminta da euskararentzat eta bultzada izugarria euskal kulturarentzat. Nire eguneroko plazer txiki handienetako bat da egunkaria euskaraz irakurri gosaltzea.

2 Euskaraz eginiko zinemaren berpiztearen testigu izan da, eta gure lanak ezagutarazten asko lagundu digu. Euskal sortzaileen elkargune ere bada, nola edo hala. Zaila egiten zait EGUNKARIA sortu aurreko garaia imajinatzea.



KOLDO ALMANDOZ ZINEMAGILEA

1 Euskarazko kulturaren zati handi batek ez zeukan lekurik ordura arte komunikabideetan. Eta EGUNKARIAK kasu egin zion, ez bakarrik goi mailako kulturari, baita beste proposamen txikiagoi eta herrikoia ere.

2 Euskal zinemagintzak ez dauka hainbesteko ekoizpenik, eta, ia-ia edozer gauza eginda ere, isla lortzera ohitu gara. Denbora pasatu ahala, hor egokitzapen batzuk egin dira, eta gaur egun daukagun mailara iritsi gara.



MAITE GURRUTXAGA ILUSTRATZAILEA

1 Artearen eta kulturaren gaineko albisteak eta hausnarketak euskaraz egiteak artearen eta kulturaren munduko terminologiara gerturatu gaitu, eta bi munduak uztartzen lagundu du. Sortzaileontzat plaza bat ere bada.

2 EGUNKARIA Antton Olariagarekin eta haren pertsonaia Zakilixutekin lotzen dut. Lan paregabea egin du ilustrazioaren eta komikiaren mundua jendeari hurbiltzeko, eta lanbide hau gehixeko ezagutarazi da hari esker.

Ez da zerutik erori

Hizkuntzaren aldekoa izan da EGUNKARIAK egindako borrokarik zailena. Ez alferrik.

EUSKALDUNON EGUNKARIAK euskarari egindako ekarpena eztaba daezina da. Hogeita bost urteotan euskararen alorrean lanean aritu direnek atzera begiratu dute, eta gogora ekarri dute orduko langintza izan duen garrantzia.

JONE AMONARRIZ

Jasangarri esan daiteke, edo iraunkor. Ekimen idatz daiteke, edo egitasmo. Erabakior edo erabakigarri. Subaldatu edo koinatu. Gonbita luzatu, edo gonbita egin. Alkate edo auzapez. BERRIAREN estilo liburuak markatzen du egunkariaren jokalekua; herritar orori erueda eskaintzen; kalitatea bermatzen; bidea seinatzen. Ez da zuhaitz batetik jausi. Ez da zerutik erori. Eta BERRIA bera ere ez. Duela mende laurden bat hasitako bidearen emaitza da: «Orain, hartzen dut EGUNKARIAREN zenbaki zahar bat, eta pentsatzen dut: 'Hau mirari bat zen', dio Irene Arrarats EUSKALDUNON EGUNKARIAKO euskara taldearen arduradun ohiak (Hernani, Gipuzkoa, 1967)—egun BERRIAN kargu bera betetzen du—. Segidan pausa bat. Emozioa.

Patxi Petrirena (Sunbilla, Nafarroa, 1963) eta Beatriz Zabalondo ere (Elgeta, Gipuzkoa, 1961) euskara arduradun izandakoak dira; egun, Berria Taldeko lehendakaria da Zabalondo, besteak beste, eta Elhuyar fundazioko zuzentzaile eta itzultzaile Petrirena. Hirurak dira euskarak egindako bidearen testigu. «EUSKALDUNON EGUNKARIAK Lizardiren ametsa egia bilakatzea posible zela erakutsi zuen. Gabeziak

gabezia —eta 1990ean asko eta handiak ziren—, Euskal Herri osorako proiektu bat aurrera ateratzeko gai ginelarik izan zen», azpimarratu du Zabalondok. Urtetik urtera, kazetaritza proiektu gisa eta hizkuntza moldearen aldetik, EGUNKARIA indarra hartuz joan zela dio Petrirenak: «Lehenbiziko une zailak iraganda —tira, une errazik izan ote du?—, sendotuz joan zen EGUNKARIA».

«Hizkuntza baten bizialdian hogeita bost urte ez dira ezer. Batzuek mendeetan egin duten bidea oso denbora gutxian egin dugu, eta egiten ari gara, oraindik bukatu gabe dagoelako», ekarri du gogora Arrarats. Mende laurdenean EGUNKARIAK —eta ondoren BERRIAK— bizia eman dio euskarari; ateak ireki dizkio lehen tokirik ez zuen eremuetan lekua egiteko. «Benetan jabetzeko zenbateraino izan den EGUNKARIA lagungarria euskararen normalizazioan, konfiantza hartu behar da nola zegoen, zein zen egoera soziolinguistikoa, eta corpusa zertan zen».

BIDEKO ARANTZAK AKUILU

«Idazle enluma eta euskara bera zorrotzeko trebaleku» izan da EUSKALDUNON EGUNKARIA. Hala deskribatu du Petrirenak. Euskarazko kazeta bat egin zitekeelako frogatik ekarri zuela gehitu du. Zabalondoren arabera, «euskal hedabideen esparrua osatzeko, behar-beharrezkoa zen eguneroko prentsaren ekarpena». Ordurako EITB eta Argia bazirela gogorarazi du: «EITB, ordea, ikus-entzunezkoetarako hizkera lantzen ari zen: ez



✓ **BEATRIZ ZABALONDO:** «Egunero egiten zen lana iragazi, perlak gorde eta esperientzia metatu ahala, estilo liburuak osatzen egin zuten bidea EGUNKARIAK»

PATXI PETRIRENA: «Euskara batu zabal bat erabili eta neurri batean eratu zuen, estandarren enborra hango eta hemengo hostoekin jantziz»

IRENE ARRARATS: «Egunero edozer gauzari buruz idazteak —ekonomiaz, zuzenbidez...— olio emanen dio hizkuntzari; distira ateratzen dio»

prosa idatzia. Argia, berriz, idatzizko aldizkaria genuen, euskal prentsaren dekanoa, baina ez zen egunerokoa. Aitortzen hasita, esan behar da Argia izan zuela EGUNKARIAK sehaska: lehen kazetariak hantrebatu ziren edo hangoak ziren». Arrarats ere Argia «haztegi bat» izan zela azpimarratu du. Baina testu masa askoz handiagoak idazteak eta egunerokoa izateak zekarren zailtasunari egin zion aurre EGUNKARIAK. Zabalondoren hitzetan: «Horrek esan nahi zuen beste abiada batean lan egin eta iraunkortasunari eutsi behar zitzaioela».

Kazetari askoren eskola izan zen, Zabalondok azaldu duenez, izan ere, ordu arte, kazetaritza fakultateetatik pasatutako ikasle gehienak erdarazko medioetan

trebatu ohi ziren. «Informazio elementuak nola idatzi —izenburuak aditzarekin edo gabe—, generoek, ilustrazioek edo argazki oinek zer trataera izan behar zuten, elkarrizketatuak eta lekukokak aurkeztean nola izendatu, pertsona eta leku izenak nola eman, beste alfabetoetako transkripzioak nola egin, nola eman euskaraz beste hizkuntzetako izenak... —azentu markak bai edo ez, eta abar— Zalanta asko zeuden». Argia-n ibilitako jendeak esperientzia bazuen euskaraz idazten, BERRIAKO lehendakariaren esanetan, baina, oro har, arazoak zituzten baita gauzarik oinarritukoena azaltzeko ere. «Egunerokoak jartzen gintuen ataka asko eta askotarako ez genuen hiztegi baturik, eta gero hiztegietan sartu diren termino asko sor-

tu, ibili eta erabili dira. Atzera begirata, ohartzen zara zein garrantzitsua izan zen orduko langintza».

«Euskara batu zabal bat erabili eta neurri batean eratu zuen, estandarren enborra hango eta hemengo hostoekin jantziz. Estandarizazioaren bidean, eragile zorrotza izan zen EGUNKARIA, orain BERRIA den bezala». Petrirenak gogora ekarri du irizpideak oraindik finkatu gabe zeudela, oinarria egonagatik. «Erabakimenez eta tinko islatu eta hedatu zituen Euskaltzaindiaren arau eta proposamenak, eta orobat gainerako normalizazio eragile-enak». Hitz eta esapide berriak ere eman dizkio euskarari EGUNKARIAK: «Hantxe erabiliko zen lehen aldiz *sosai* norbaiten ezaugarriak adierazteko; *noranahiko*, lur orotarako esateko; bide baten *bikoizketa*... Erreproduzitzailerik ez ezik, sortzaile ere izan zen EGUNKARIA, orain BERRIA den bezala. Bizitasunaren seinale».

EUSKARA EGUNERO ETA DENENTZAT

EUSKALDUNON EGUNKARIA sortu zenean, bi ezaugarri zituen, batez ere, besteetatik bereizten zutenak: Euskal Herri osoarentzako kazeta zela, bate-tik, eta euskara hutsean zela, beste-tik. «Prosa zappi herrialdeetarako baliagarria izatea zen helburua, eta bizitasuna eta kolorea izan zitzaela, txokokeriak ahaztuta». Arau edo helburu biak muga ziren, dudarik gabe, baina eronka ere bai. Motibazio horri segitu, eta gaur arte euskaldun orok izan du kioskoan —orain sarean ere bai— Euskal Herriko eta euskarazko egunkari bat, kosta ahala kosta:

GOIERRIKO INTERPRETAZIO ZENTROA
ELIKADURA ETA GASTRONOMIA GUNEA

delikatuz
ORDIZIA

ORDUTEGIA: Denboraldi Altuan (Aste Santuan, Uztaila eta Abuztua, Gabonetan eta zubiak eta urte osoko asteazkenak) astelehene-tik - ostiralera: 10:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00 · Larunbat, igande eta jaiegunetan: 11:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 / Denboraldi baxuan asteartetik ostiralera asteazkenak ezik: 9:00-13:00 · Larunbat eta igandetan: 10:00-14:00

Santa Maria kalea, 24
20240 Ordizia (Gipuzkoa)
943 882 290 - www.delikatuz.com





EGUNKARIAK irauin zuen 11 urteetan, hiru estilo liburu kaleratu ziren; gero, beste bi; sarean ere erabilgarri dago etengabe eguneratzen den bertsio bat.

BERRIA

«Gure irakurle potentzialen artean, gainera, euskaltzainak zeuden eta AEKn laugarren urratsean zegoen jendea. Eta denentzako moduko egunkari bat egitea zaila da. Nekeza da. Eta are gehiago erabat normalizatu gabe dagoen hizkuntza batean».

«Hala, poliki-poliki, egunero egiten zen lana iragazi, perlak gorde eta esperientzia metatu ahala, estilo liburuak osatzen ere egin zuen bidea EGUNKARIAK. Lehenengoek hiztegi kontu asko jaso zituzten, baina, hiztegin zintan ere aurrera egin zenean, horretan zebiltzanen irizpideak onartzeko erreparorik ere ez genuen izan, gu gehiago zentratzeko prosagintzan eta euskarazko kazetaritza moduetan», nabarmendu du Zabalondok. Hizkuntzaren normalizazioan oso lagungarria izan da estilo liburuak. «Beti entzun izan ditugu hitz onak estilo liburuari buruz». EGUNKARIAK irauin zuen 13 urteetan, hiru estilo liburu kaleratu ziren. «Estilo liburuak beti izaten dira barrura begira egindakoak. Etxeko jendeak zeri heldu eduki

dezan. Hor sistematizazio lan bat egiten da, ikusi zein diren komunikazioa tratatzen duten arazo handienak, eta horiei konponbide batzuk eman. Jokaleku bat markatzen da horrela. Jokaleku horren barruan, kazetari bakoitzak bere estiloa dauka, noski, azaldu du Arraratsek. Kanpora begira ere oihartzun handia izan du, eta dezente erabili izan da eskoletan, euskalgetietan eta itzul-tzaileen artean. «Proposamen bat zen euskara estandar bat, euskara periodistiko bat egiteko.

Bide bat markatu zuen, eta, hain zuzen, horregatik egin zitzaion halako harrera ona».

Metaforak tarteko, argi eta garbi azaldu du egungo euskara taldearen arduradunak EGUNKARIAK euskarari eginiko ekarpena. «Egunero edozer gauzari buruz idazteak—ekonomiaz, zuzenbidez...—olioa ematen dio hizkuntzari; distira ateratzen dio. Zenbat eta gehiago erabili orduan eta zorrotzagoa den tresna bakarra da hizkuntza. Besteak kamustu egiten dira erabiltzea-

ren poderioz. Hizkuntza ez: hizkuntzarekin justu kontrakoa geratzen da; zenbat eta gehiago erabili, orduan eta zorrotzagoa da». EGUNKARIAK horretan lagundu zuen, besteak beste, Arraratzen arabera. «Argi dago sekulako lana egin zuela eta, seguruenik, normalizazioan egin duen ekarpena ere etorkizunean ikusiko dela garbiago, gaur egun baino; baina gaur egun ere eztabaidaezina da ekarpen hori», goraipatu du Petrirenak.

«Ikusita duela hogeita bost

urte nola zegoen panorama eta orain nola dagoen, arazoak arazo, zailtasunak zailtasun, eta itsutu gabe, pozik egoteko moduan gara. Euskarari gero eta gauza hobeak ematen jarraitu behar dugu, exijentzia ere handiagoa delako. Asko exijitzen diogu euskal kazetaritari; eta, nire ustez, hala behar du». Arraratsek aitortu du gaur egun kazetaritzan egiten den prosa moldea «zordun» zaiola EGUNKARIAK egindako lanari, neurri handi batean. Hiru testiguak bat datoz horretan.



Martin Ugalde parkea itxuraldatu egin da urteen poderioz.

EGUNKARIA



Eskuz marraztu eta muntatzen ziren orriak hasieran.

EGUNKARIA

Artxiboetan gordetako oroitzapenak

Urteen joan-etorrian, langile asko pasatu dira euskara hutsezko kazeta nazionaletik, norik bere arloan euskal komunikazio esparrua aberastuz



Elkarretaratzea Baionan, itxieraren ostean.

BOB EDMÉ



Andoaingo erredakzioko lankideak, 1996an. EDURNE KOCH



Gasteizko erredakzioko lankideak, 1996an.

EGUNKARIA

www.irizar.com

Irizar
ESTRATEGIA EN LA VIDA

Pertsonekin eta ingurunearekin konprometitu



M. Ugalde, J. Zumalabe, eta I. Murua Uria. ARGIA



Bilboko erredekazioko kideak, 1996an. EGUNKARIA



Iruñeko lankideak, atsedean hartzen. EGUNKARIA

Juan Luis Zabala *Pipi*, hasierako urteetan. C. VILLAGRAN

Administrazioiko lankideak, Andoainen. EGUNKARIA



Euskarazko egunkaria

25 urte betetzea ez da kasualitate hutsa izan. Horrelako zifra baten atzean pasioa, kemena eta lan handia daude beti, mende laurden batez gure hizkuntzaren eta kulturaren alde egindako lanak erakusten duenez. Zorionak.



EUSKALDUNON EGUNKARIAREN lehen azala (1990-12-06).



Irailaren 11ko atentatuetakoa azala, saritua (2001-09-12).



EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi zuten, baina EGUNKARIAREN ahotsa isildu ez. EGUNEROREN lehen azala (2003-02-21).

Historia, azaletan

Euskal Herria eta mundua ikusteko eta kontatzeko modu propio bat, azaletan eta mamian islatua





EGUNKARIA itxi eta sei hilabetera, BERRIA jaio zen (2003-06-21).



ETAk behin betiko utzi zuen jarduera armatua (2011-10-21).



Lehen Igandea. Gure Esku Dago-ren giza katea (2014-06-01).



EGUNKARIAREN auzia itxi zuten. Injustizia ez (2014-10-15).




Charlie Hebdo-ren kontrako erasoa (2015-01-08).



Aldaketa politikoa iritsi zen Nafarroara (2015-05-25).





esanetan. Komunitatearen ideia du oinarri kanpaina horrek, eta, hain justu ere, kideei abantailak eskaintzen haste-koak dira aurki.

ALDAKETA HANDIAK DEIALDIA

Halako aurre-
rapausorik ez
da ageri beste
alor batzuetan.

Ezinegon handia eragin du Jaur-laritzak azken bi urteetan hartu-tako norabideak. Zeharo aldatu ditu euskarzko hedabideei laguntzak emateko irizpideak. Gakoa *irismena* kontzeptua da orain —puntuen %70—: bere eragin esparruan, komunikabide bakoitza zenbat herritarrengana iristen den, kalkulu hori. Horrek kalte egin dio egunkari nazionalari. BERRIA sortu zenez gero, ez da oraingoa bezain txikia izan Jaurlaritzaren diru laguntza.

Azken urteetan euskarzko herri ekimeneko hedabideek emandako pauso handienetako bat elkar hartzea izan da: Hekimen elkarteak sortu dute. Haren bitartez, gomendio batzuk egin zizkioten komunikabideei Jaur-laritzari. Bat: hedabide bakoitzaren izaera eta hedadura aintzat hartu behar direla, denentzat ez delako berbera publiko potentziala —ez direla berdinak tokiko hedabideak eta nazionalak, egunerokoak eta hilabetekariak—. Bi: neurketan, hedaduraz gain, frekuentzia ere hartu behar dela kontuan, eta denentzat aldagai bera erabili behar dela —hots, komunikabide bakoitza zenbatean behin iristen den kontsumitzaileengana—. Eta hiru: neurketak egitean aldagai homogeneoak erabili behar direla; puntuatzeko eta neurtzeko modu bera —era bat baino gehiago erabili dituzte: aleen kopurua, inkestak...—. Adituen txostenak ere aurkeztu ditu Hekimenek. Jaurlaritzak ez ditu aintzat hartu gomendio horiek.

Oraintsu, aldaketak egin eta bi urtera, audientziei buruzko inkesta bat egin du gobernua. BERRIaren kasuan, asteke irakurleak 117.300 dira; publiko potentzialaren %17 da. Egunerokoak dira zatirik handiena: 62.000 lagun. Inkestan galdera egin dute bezperan egunkaria irakurri zutenei buruz ere: 36.600ek esan dute baietz —kontuan hartu behar da astearteetan ere galdetu dutela, nahiz eta bezperan pape-reko alerik ez kaleratu BERRIA—. Aldaketak izango dira datozen urteetan. Hedabideen urteetako aldarriari kasu eginda, urte bate-rako baino gehiagorako deialdia egitekoa du Jaurlaritzak —urtero-koa izan da deialdia orain arte—. BERRIALagunak lortzeko kanpaina ere indarrean jarraituko du, babes handiagoa lortzeko.

Behar adinako laguntzarik ez

Eusko Jaurlaritzatik inoiz baino laguntza txikiagoa du BERRIAk: %15 jaitsi du ekarpena bi urtean

Diru laguntzak emateko irizpideak aldatu egin dituzte gobernuek, hedabideen sektorearekin adostu gabe. 'Paperaren krisiarekin' bat egin du jaitsiera horrek.

GARIKOITZ GOIKOETXEA

Hasiera zaila izan zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAK, eta, erakunde-
deen laguntzari dagokionez, ez ditu garairik erosoan BERRIAK ere. Euskarzko hedabideak sustatzeko diru laguntzen irizpideetan aldaketa handiak egin ditu Eusko Jaurlaritzak azken bi urteetan, eta BERRIARI kalte handia

eragin dio: %14,6 diru gutxiago jaso du azken bi urteetan —aurten 1,29 milioi euro izan dira—. Sektorearekin ez dituzte adostu aldaketa horiek. Papereko hedabideen krisiarekin bat egin du Eusko Jaurlaritzaren kolpeak: egunkarien salmentak jaisten ari dira —*paperaren krisia* esaten diote—, eta Interneteko kontsumoa, igotzen. Hor diru sarrerak lortzea da eronka.

Herritarren babesaren erakusgarri, finantzaketa aldetik bereztzia da BERRIAREN egoera, beste egunkari gehienekin alderatuta: irakurleak ditu eusle nagusi, batez ere harpidedunak. Krisiaren



JON URBE / ARP

aurreko urteetan, paretuan zeuden publizitateari eta egunkari salmentei lotutako diru sarrerak; baina orain, publizitatearen jaitzierarekin, are pisu handiagoa dute irakurleek. Harpidetzetan dauka indar handia BERRIAK, goi-zero-goizero egunkaria etxean jasotzen duten irakurle horietan.

Diru sarreretan, BERRIALagunek ere pisu handia dute, gero eta handiagoa. Lau urte dira BERRIAK *Zure ziztada behar dugu* kanpaina abian jarri zuela, eta oso emaitza onak ditu. Aurten 600.000 euro inguru biltzea espero dute. «Oxigenoa», Martxel Otamendi zuzendariaren

Oiartzo
BATXILERGO IKASTOLA

Zamalbide auzoa, 2/g
943 526 804 - 943 520 397
batxilergo@oiartzo.ikastola.net
www.oiartzoikastola.eus

orereta
IKASTOLA

www.oreretaikastola.eus
943 520 397 | www.oreretaikastola.net

Itxuraz eta mamiz guztiz eraberritutako egunkaria aurkeztu zuen BERRIAk orain dela urte eta erdi: eduki sakonagoak dauza. IGANDEKO BERRIA da aldaketa handienetakoa bat.

GARIKOITZ GOIKOETXEA

Papereko hedabideen gainbehera agerikoa dela diote adituek. Gero eta gutxiago jotzen duela jendeak egunkariak paperean irakurtzera. Interneten dagoela etorkizuna. Oraina ere bai. Gogoeta prozesu luze baten ostean, Interneteko edizioaz gain paperekoa ere indartu egin zuen BERRIAk orain urte eta erdi. Azalekoa izan zen berrikuntzen ardatzetako bat, diseinuari lotutakoa; mamiari lotutakoa da beste giltzarria, eduki sakonagoak baitira BERRIA berrituaren eskaintza. Finean, etorkizunerako egunkari eredu bat egitea izan da asmoa: Interneteko abiadurari gogoetarako eta sakontasunerako aukera erantsiko zion papereko alea.

Diseinuan sumatu dute irakurleek aldaketetako bat. Danel Agirre diseinatzaileak eguneratu du kazeta. «Egunkariaren ezaugarri eta atalik sendoenak nabariago azaltzea» izan du helburu eraberritze horrek. Azalean ere oso nabariak dira berrikuntzak, ikusgarritasun handia irabazi baitute.

Baina itxura aldaketa huts bat baino gehiago izan da. Erredakzioan bertan aldaketa handiak egin dituzte, lantaldea bi euskarietara begira jartzeko: paperekoa eta Internetekora. Helburua bikoitza da, izan ere: Euskal Herriko eta mundu osoko albisteak kontatzea, batetik, eta horiei buruzko giltzarriak eskaintzea, bestetik. Orain arteko bokazioarekin, berrikuntzetan jarraitzea.

IGANDEKO BERRIA, ALE BEREZIA Azalik berritzaileenak IGANDEKO BERRIArenak dira: egunkarian toki nagusia duen gaiak alderik alde hartzen du azala, ilus-



Hobekuntzarako jauzia

Berrikuntzaren bidetik, paperekoan aldaketa handia egin du BERRIAk: eskaintza osatuagoa du

trazio adierazgarri batekin beti. Jauzi handia izan da, kontzeptu aldaketa bat: arnasa luzeko begirata, egunerokoaren gainetik. Erreportaje interesgarriak, elkarrizketa luzeagoak, analisi landuak. Gogoetarako da IGANDEKO BERRIA. Lasai irakurtzeko egunkaria. Asteko gertakari nagusiei eta gertatzeoak direnei errepa-

ratzeko da, azken batean. Hasiarako orrialdeetan asteko gaiari buruzko erreportaje zabala darara, argazki eta infografia ikusgarriekin. Azken finean, egunkari osoak dauka sakontasun izpiritu hori, sailez saileko elkarrizketetan eta analisisetan. Guztia, noski, egunerokoari lotutako gaurkotasunarekin lotuta.

IRITZIA ETA KULTURA Egunkari berrituan pisu handiagoa daukate iritziak eta kulturak, bi atal horiei irakurleek ematen dieten garrantziari erantzun nahirik. Egunerokoan indartu egin dute *Iritzia* atala, orri gehiagorekin eta iritzi emaile gehiagorekin. Igandeeetako eskaintza be-

reziaren ildotik, sail berri bat ere badu iritziko atalak: eztabaidagela. Gaurkotasunari lotuta dauden gaiak buruzko ikuspegiak emateko plaza da eztabaidagela.

Kulturak ere pisu handiagoa dauka, batez ere IGANDEKO BERRIAN. *Nasan* gehigarria da kulturaren plaza: zortzi orri astean. Literaturari, musikari eta bestelako arteei buruzko kritikak, erreportaje eta elkarrizketa bereziak eta bestelakoak dira gehigarriaren ardatza. Finean, kultur sorkuntzaren eta mugimenduaren erakuslehoia da *Nasan* gehigarria, eta kultur gintzaren inguruan gogoeta egiteko topalekua ere bai.

GEHIGARRIAK: KIROLA ETA AISIA Eskaintza osatuagoaren erakusle dira gehigarri bereziak. Astearteetan, kirolari buruzkoa: *Tantoa*. Asteburuko kirol uholdearen ondoren, gogoetarako eta gai interesgarriak proposatzeko gehigarria da, zortzi orrialdekoa. Erreportajeak, asteko kirol nobedadeen analisia, nabarmendu den pertsonaia... Mendizaleentzako txokoa ere bada *Tantoa*; hor daukate gaurkotasunarekin lotutako elkarrizketak eta erreportajeak, albisteak eta mendian ibilbideak egiteko proposamenak.

Larunbatetan, *Bizigiro* gehigarriak hartzen du tokia. Aisialdiarekin lotutako proposamenak ditu ardatz gehigarri horrek: ikuskizunak, jaiak, zinema estreinaldiak, bestelako ekitaldiak... Proposamen horiekin batera, baditu bestelako gai batzuk ere, eguneroko bizimoduarekin lotutakoak: teknologia berriak, bi-daiak, gastronomia...

Uda garaian eraldatu egiten da egunerokoa, eta toki gehiago hartzen dute aisialdiari dagozkien gaiak. *Bizigiro* gehigarriaren ildokoa da udako proposamena: *Udagiro* gehigarria. Horren bidez, jaiak, aisialdiak eta halako proposamenek leku handiagoa dute udako kazetan, irakurleen interesari erantzuteko.



iareraikuntzak@gmail.com • 661.633.695 • ALEGIA

Aurrera **BERRIA!**

TEILATUAK
FATXADAK
ERREFORMAK

Eraberritu ala hil

Behar berrietara egokituta, multimedia erredakziorako salto eman du BERRIAk

Iaz berri zuten BERRIA egunkariaren webgunea. Aldaketarekin, garai berrietara egokitu zuten: zuria du kolore nagusia, eta bertikalagoa eta irakurterraza da.

Eraberritu ala hil. Hala esaten zaio garaian garaikora moldatzeko beharrari. Interneten kasuan, bizi-bizia eta agerikoa da berri-tze etengabea. Iaz aldatu zuten BERRIAren webgunea, aurrekoa «zahartuta» zegoelako. Hala adierazi du Jon Ordoñezek, *Berria.eus* webgunearen erredaktoreak: «Aurrekoaren gabezia nagusia zen. Diseinu hura duela urte dezenteko egindakoa zen, eta ez zien behar bezala erantzuten egungo beharrei».

Ordoñezek arabera, 2009an hamabi edo hamahiru albiste sartuko ziren egunean BERRIAren edizio digitalean. «Gaur egun, ordea, askoz ere albiste gehiago idazten dira webgune-rako; beraz, egungo erritimoan, oso kargatua geldituko zen ordukoa, elementu askoko webgunea baitzen». Horregatik, karga kentzera jo zuten, sinpletzera, irakurketa errazteko. «Hori egin ezean, irakurleak atzera egin dezake».

Era mailakatuan jarri zen mar-xan webgune berria. 2014ko

otsailean, lehenik, beta bertsioa abiarazi zuten: diseinu berriak akatsik sortzen ote zuten aztertu, eta beharrezko aldaketak egiteko fasea zen. Tarte horretan, bi webgune zeuden martxan, aldi berean: zaharra eta berria. Papereko diseinu berria estreinatzearekin bat desagertu zen diseinu zaharra, ekainaren lean.

Arintasun bila, webguneko letra mota aldatu zuten, eta zuriari nagusitasuna eman zioten. Bertikalatasunak ere lagundu zuen webguneari pisua kentzen. «Ezin duzu ahalik eta eduki gehien pilatu goiko aldean, itomen sentazioa eman dezakeelako. Horregatik, albiste nagusi baten aldeko apustua egin dugu: lehen ere bagenuen nagusi bat, baina orain are nabarmenagoa da». Lehen, sail bakoitzeko kolore bat erabiltzen zen zintetan: morea Kulturari, berdea Euskal Herriari, gorria Kiroletan, urdina Munduan... Guztiak modu berean erakusten dira orain, letra urdinekin, atze-alde zuriaren gainean. Webgune zaharraren aldean beste aldaketa bat: irudien erabilera. «Lehen ez bezala, albiste guztietan sartzen ditugu argazkiak, txikiago edo handiago, edo bideoak. Titulua osatzen dute, informazio gehigarria emanez».

Diseinua egokitzea zen lehentasuna, baina, itxura aldatzearekin batera, webgune zahar-

ordura arte ez zituen funtzio batzuk gehitu zizkioten. Izan ere, irakurketa erraztu ez ezik, irakurleen eta egunkariaren arteko elkarrenergina bultzatu nahi zuten: «Modua eman genuen, besteak beste, albisteak entzuteko, sare sozialetan partekatzeko eta, Disqus plataformaren bidez, iruzkinak egiteko». EHUko Aholab ikerketa taldearekin sortutako tresna batek ematen du, hain zuzen, albisteak entzuteko aukera. Azken urteetan nabarmen indartu dira sare sozialak, eta, loturak konpartituz, ohiko irakurleengana zein irakurle potentzialengana iristeko tresna bihurtu dira. «Lehen, Berriketan sare sozial propioa geneukan, baina, Twitter eta Facebookek hartutako indarra ikusita, konturatu ginen guk ere horiek erabili behar genitula, gure irakurleek horiek erabiltzen dituztelako». Horregatik, gaur egun, zuzeneko kontaktuz sare sozialen bidez, eta gero webgunerako idatzi.

Izan ere, papereko diseinua zein webguneakoa eraberritzearekin batera, erredakzioa ber-rantolatuta eta aldaketa egin zen, lanari dagokionez: «Multimedia erredakziorako salto egin genuen. Badago talde bat azken ordukoen gainean dagoena, eta, horrez gain, kazetari bakoitzak papererako zein webgunerako idatzi behar du».



Ezkerreko aldean ikusten dira azken orduko albisteak *Berria.eus* webgunean, eta eduki propioek toki berezia dute eskuineko aldean: *Kultura, Kirola, Iritzia, Badok*, Berria TB, blogak, *Ibilkari*...

BERRIA

Era berean, eduki propioei bultzada eta ikusgarritasuna ematea ekarri zuen webgune berriak. Hala, toki berezia dute webgunean kulturak, kirolek, iritziak, *Ibilkari*-k, blogak eta Berria TBk, besteak beste. «Lehengoa webguneak arreta puntu gehiegi zituen, eta oraingoa markatua da bakoitzaren espazioa».

'BADOK' BERRITUA, INDARTUA

Berritze prozesu horren beste ertz bat izan zen *Badok* webgunea. Euskal kantagintzaren ataria 2009az geroztik dabil martxan, baina salto nabarmena markatu du berritzeak *Badok* zaharraren eta berriaren artean, Jon Eskisabel proiektuaren koordinatzaileak azaldu zuenez: «Aurreko *Badok* garai analogikoari zegokion, molde zaharrari. Honako hau aro digita-

lerako prestatutako tresna bat da. Bertsio berrituarekin, musikaren zabalkundea da lehentasun nagusi. «Musika entzuteko modua asko aldatu da urteotan. Talde eta diskoetxeek musika zabaltzeko modua aldatu dute. Orain, plataforma digitalen bidez egiten dute». Webgune berrian, erabiltzaileek zerrendak egin eta nahi dituen kantu edo diskoak pila ditzake erreproduzitzailan. Eta kantua entzun bitartean, bertan nabigatu. «Euskal musikaren kontsumoa probokatu nahi dugu. Horretarako, kantu zerrenda personalak egingo dituzte musikari eta musikazale ezagunek». Musika entzuteko aukera emateaz gain, atari berriak eduki proiektuak ditu: elkarrizketak, erreportajeak, disko kritikak... BERRIAN euskal musikagintzaren inguruan argitaratzen diren edukiak hartu eta zabaltzen dituzte.

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA
2015-2016
www.katalogoa.eus

PAPEREZKO EDIZIOA, hautatutako produktuekin.
INTERNETen produktu gehiago eta azken ordukoak!

MUSIKA
FILMAK
ALDIZKARIAK
KOMIKIAK
LIBURUAK
GURASOENTZAKO MATERIALA
JOSTAILU ETA JOKOAK

0-12 URTE

LEPOAN KALTEA DAGIENAK BIZARRA
Getxo
bizi ezazu
EUSKARA BIZI
www.katalogoa.eus



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Martxelo OTAMENDI

22 urte eta erdi pasatu dira Otamendi EUSKALDUNON EGUNKARIAKO zuzendari izendatu zutenetik. Etxe barruko gertaera guztien lekuko izatea egokitu zaio, garai onetan zein txarretan. EGUNKARIAREN eta BERRIAREN gorabeheraz hitz egin du, adierazpen askatasunaz eta euskara hutsezko egunkariaren erronkez.

«Ahulena jotzea erabaki zuten»

Pello Zubiria eta Iñaki Uriaren ostean, Martxelo Otamendi (Tolosa, Gipuzkoa, 1957) izendatu zuten EUSKALDUNON EGUNKARIAKO zuzendari, 1993ko ekainean. Tolosako euskaltegian irakasle ibilia zen, baita ETBn ere, aurkezle eta zuzendari.

EGUNKARIA- Nola gogoratzen duzu euskara hutsezko egunkariaren sorrera?

M. OTAMENDI- Garai hartan, *Babel* saioa aurkezten nuen, Hasier Etxeberria zuzendari zela. Grabazio egun baten ostean —abenduaren 5ean izango zen—, Lasarteko egoitzara joatea proposatu zuten Etxeberriak, orduan ariko zirelako EGUNKARIAren lehenengo zenbakia egiten.

EGUNKARIA- Zer moduzko giroa zegoen?

M. OTAMENDI- Festa handi bat edo ospakizun bat aurkitzea espero nuen, baina langileak topatu nituen lanean. Xanpain botila batzuk, Txillardegik eramanak —gu iristerako jada ez zegoen han—, eta pizza batzuk, baina haiek lanean ari ziren. Eta ni nire baitan: sekulako kanpaina egin dute, herriz herri ibili dira... Eta EUSKALDUNON EGUNKARIA jaio den egunean, badirudi hemen ez dela ezer gertatu.

EGUNKARIA- Nolako egoera topatu zenuen zuzendari izendatu zintuztenean?

M. OTAMENDI- Euskarazko egunkaria egiteko sekulako ahalegina egiten ari zen giza talde bat topatu nuen. Bazeukan administrazio batzuen laguntza —Gipuzkoako Diputazioarena, esaterako—, baina ez Eusko Jaurlaritzarena: boikot egoera irrazional bat zen hura. Baina ilusio handia zeukan jendea topatu nuen, oso baldintzaturata zeuden arren: euren lan gaitasuna ezin zabalduz, ezin he-

dutuz, egoera ekonomiko estu eta larriak eragina.

EGUNKARIA- Egoera horri buelta ematea lortu zen.

M. OTAMENDI- 1994an, mugimendu batzuk izan ziren Eusko Legebiltzarrean. Gogoratzen dut Mario Onandiak eta PSE-EEK neresio handia egin ziotela EAJri, horrela jarraitzea ez zela posible adieraziz. Jaurlaritzak, ikusi zuten ezin zuela hondoratu egunkaria, gutxienez zer edo zer laguntzea erabaki zuten. Horrela sinatu zen 1994ko akordioa. Gero, ez ziguten urrerik oparitu, baina, gutxienez, egoera itogarri hartatik ateratzeko balio izan zuten.

EGUNKARIA- Bost urteko tartean itxi zituzten *Egin* eta EGUNKARIA. Zein analisi egiten duzu?

M. OTAMENDI- Adierazpen askatasunari egin dakioken erasorik larriena egin zitzaion bi egunkariari: komunikabideak itxi eta zuzendaritzak atxilotu. Gainera, horren akusazio larriak eginez. Beti esan izan da egunkariak erosleek bakarrik itxi behar dituztela, ez poliziek. Biak izan ziren une oso gogorak Euskal Herriaren historian, eta European

adierazpen askatasunari egindako erasorik handienetakoak, handienak ez badira.

Motibazio desberdinak izan ziren, dena den, bi egunkariaren itxieretan. *Egin* bazen, Espainiarrentzat, tresna informatibo kezagarri bat: jarrera politikoa nabarmen bat zeukan, Hego Euskal Herrian biztanle guztiengana iritsi zitekeen eta Espainiako hiri nagusietan saltzen zen. Euskal Herriaren ikuspegi jakin bat ematen zion irakurleari, medio handietan ateratzen ez zena. Horregatik itxi zuten. Gurea txikiagoa zen, euskarazkoa, eta salmenta gutxiago genuen.

EGUNKARIA- Zergatik itxi zuten, orduan, EGUNKARIA?

M. OTAMENDI- Erasoz ziezakeeten aukera guztietatik, zerrendako ahulena jotzea erabaki zuten Espainiako Gobernuak. Garranritzi edo eragin ahalmen gutxiena zeukana, eta, aldi berean, enblematikoenetako bat zena. EUSKALDUNON EGUNKARIA izan zen —eta BERRIA bada— euskal kulturaren begi ninietako bat. Inork espero ez zuen pieza bati egin zioten eraso, jendeari abisu bat eman asmoz. Urte haietan, Euskal He-

rriko alderdi abertzaleen hiztegi politikoan Ibarretxeren plana, autodeterminazio edo independentziarako eskubidea zeuden. Itxiera, atxilotetak, inkomunikazioa, tortura, espetxea... Hori guztia egin zuten erakusteko noraino iristeko prest zeuden. Mezu hori bidali zuten Espainiako Gobernuak, eta jendeak ulertu egin zuten.

EGUNKARIA- Jendeak emandako elkartasuna eta babesa izugarria izan zen.

M. OTAMENDI- Marra gorria pasatu zuten jende askorentzat: euskaldun, abertzale eta bestelako jende askorentzat ere bai. Akusazioak oso larriak ziren, eta tartean zeuden Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uriak, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga eta Martin Ugalde bezalako jendea. Euskal Herriko paisaia prestigio handiko jendea da. Eta haiek ETako kide zirela esatea jende askorentzat marra gorria pasatzea izan zen. Jende askok ikusi zuten bere burua babesteko aukera EGUNKARIA babestuta. Jendea EGUNKARIA itxtearen kontra atera zen kalera, baina baita bere alderdi politikoa, sindikatua, eskola eredu,

bere kooperatiba eredu edo bere finantza eredu babesteko ere.

EGUNKARIA- Hamahiru urterekin itxi zuten EGUNKARIA; datoren urtean parekatuko du BERRIAK adinean. Nolako osasuna antzematen diozu?

M. OTAMENDI- EGUNKARIA oso proiektu ona eta txukuna zen. Ordukoa zen, garai hartan zeuden baliabide ekonomikoekin egin. Salmenta maila interesgarria zuen. 1994az geroztik, hazkunde fasean zen: Lasartetik Andoainera etorri ginen, gehigarriak egiten hasi ginen, orri kopuruak gehitzen eta, beraz, langile gehiago hartzen. Heltzen ari zen, heldu bihurtzen: sendo geundenean eman ziguten egurra. Itxieran, gure jendeak gaitasuna erakutsi zuen, sendotasuna, irmotasuna, konbentzimendua, ausardia eta arriskua asumitzeko borondatea. «Ez gara etxera joango: dakiguna egingo dugu, eta gaur egingo dugu, ez dugu bihar arte itxarongo», esan zuten. Sendotasun hori bazuten langileek EGUNKARIATIK, eta horregatik egin ahal izan zuten EGUNERO hurrengo egunean.

EGUNKARIA- Zeintzuk dira BERRIAREN erronkak?

M. OTAMENDI- Modu sendo batez komunikatzen jarraitu behar dugu, erreferentzialtasuna izanez eta jendea bilduz gure informazioa. Gizartearen ikuspegitik, BERRIALagun deitzen dugun komunitate hori biltzen eta trinkotzen jarraitu behar dugu. Ikuspegi teknologiko profesional hutsetik, oso erne egon behar dugu dugun kontsumo, teknologia eta gizarte aldaketek usaina garaitu hartu eta garaitu erantzuteko. Oso erne egon behar dugu mugimendu soziologikoak norantz mugitzen diren sumatzeko. Hor egon, baina garbi edukita etxe barruan segitu behar dugula sendo lanean, trinko, gorputz sendo batekin, jendea proiektuarekin identifikatuta egonik: horrela sortu ahal izan zen EGUNERO, eta hori lantzen jarraitu behar dugu.

azpeitia
udala

Oztopo guztien gainetik, mende laurdena
euskara hedatzen eta hedabideak euskalduntzen

Asteasuko udala

Askatasunez
idatziz,
askatasuna
irakurriz,
askatasunaz
gozatuz.

EGUNEKO DIANAK

**Argia-ko lagunak**

Euskara hutsezko egunkariaren aldeko kontzientziak piztu zituelako. Eztabaidak atzean utzi eta deliberamendu osoz jardun zutelako. Halako proiektu batek behar zuen bultzadaren bila euskal kultur-gintzara jo zutelako. Euskarazko egunkariaren alde behar zen gutzia jarri zutelako.

**Herri batzordeak**

Herriz herri euskara hutsezko egunkariaren aldeko lanean aritu ziren herritar guztiak. Ilusioa jendarte zabal bati hedatzen lagundu zuten guztiak. Boluntario haietako bakoitzak jarritako aletxorik gabe, herritarren bultzadarik gabe, eguneroko prentsa hankamotz geldituko zelako.

**Juan del Olmo**

2003ko otsailaren 20an Espainiako Auzitegi Nazionalako epaile Juan del Olmok ahalbidetu zuen EUSKALDUNON EGUNKARIA ixtea eta horren arduradunak atxilotu, inkomunikatu, torturatu eta espetxeratzea. Itxi egin zuten EGUNKARIA, baina ez dago isilaraziko duen guardia zibilik.

**EGUNKARIAko langileak**

Kazetaritza euskaraz egin daitekeela frogatu zutenei. Baldintza guztien gainetik euren onena proiektuan jarri zutenei. Momentu on zein txarretan idazten jarraitu zutenei. Itxierari berehala beste egunkari batekin erantzun zieten. Zuen lanak 25 urteko fruitua eman du.

Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori da* EGUNKARIAREN itxierak bultzatutako kantuetaiko bat.

LANDER FDZ. ARROIABE

Zauri sakona kantuz baretzen

EGUNKARIAREN itxierak hainbat abesti utzi zituen lekuko

Katuek nola, zauriak miatzatu eta baretzeko hainbat aukera izaten dira: kantuek, adibidez, balio dezakete ihesbide gisa. Euskal musikariek EGUNKARIAREN itxieraren harira sortutakoak lekuko.

«Inork ez zidan esan/ euskaldun izatea zein nekeza den,/ hobe nuela hautatzea/ munduko hiritar izatea». Ru-

per Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* abestiaren (*Kantuok jartzen ditut*, 2003) lehenengo akordeak entzutearekin bat, oroitzapenak datoz EGUNKARIA ixtean zauria sentitu zutenen bihotz-gogotara.

Zauri sakona egin baitzuen EGUNKARIA ixteak, eta min ematen du oraindik ere. Baina Ordorikarena bezalako kantuek balio dute min horiek nolabait apaltzeko, baretzeko.

Ez zen hura izan EGUNKARIA-

itxi izana salatzeako sortutako kantu bakarra. Kauta taldearen *Zaharrak berri* kantuak gogora ekarriko dio bati baino gehiagori 2003ko otsailaren 20an gosaldutako kafesne geza hura. «Geldiezinak diren hitzak», zioten, eta horixe bera frogatu zuten EGUNKARIAko langileek egun horretan bertan EGUNERO eginez lehenengo, eta BERRIA sortuz gero.

«Zure barnean/ murgiltzen naizen bakoitzean/ gogora arazen didazu/ benetan naitzena/ hain zera ederra/ ira-

kurterreza/ zu zara Egunkaria». Doinu dantzagarrira eraman zuen salaketa Su Ta Gar taldeak, *Zu zara egunkaria* abestiaren bidez (*Itzasoz beteriko mugetan*, 2013). Gozategi taldeak *Tirolaley* abestian egin zuen salaketa propioa.

EGUNKARIA sortu berritan egindako kantuak ere ez dira ahaztekoak. Imuntzo eta Belokiren *Egunkaria (Jo ezak!*, 1991). Txirri, Mirri eta Txirribitonek hitzak aldatu zizkieten *Zapi zuria-ri, Egunkaria aurrrera* abestuz.

irrimarra



L ERRO GUTXITAN

Behin eta berriz lagundu zutenak gogoan

1990ean lehenengo. 2003an gero. Esker oneko hitzak baino ez ditugu proiektua artean gauzatu gabea zenean zein EUSKALDUNON EGUNKARIA indarrez itxi ostean ahal zuten neurrian lagundu zuten guztientzat. Ez da nahiko hitzik hiztegiaren gizariek emandako babes, elkartasun eta laguntza guztia behar bezala eskertzeko. Horiei esker, euskara hutsezko kazetak ez zuten behin ere hutsik egin kiosko eta harpidedunen etxeetan. Euskara hutsezko egunkari nazional bakoitzaren ahotsari arnasa eman baitzioten. Behin eta bitan lagundu zuten horiek guztiak ditugu gogoan 25. urteurrenean.



Itxiera salatzeako manifestazio erraldoia (2003-02-22) A. C./ARP

.....ETA BIHAR

BERRIarik ez

Bihar ez da BERRIARik kale-ratuko. EGUNKARIAREN sorreratik bezala, astelehenetan ez da euskara hutsezko egunkaririk izango ez kioskoetan, ez harpidedunen etxeetan. Baina, orduan bezala, informazioz bete itzuliko da asteartetik aurrera: «Zure zain izango gaituzu etzi, egunerokotasunaren jarraipen zehatza emateaz gain, azken gertaeren inguruko eritzi, balorazio eta elkarrizketak eskaintzeko». Edukiz betetako zenbakia izango duzue zain etzi, duela 25 urte hasi eta gaur arte izan den bezala. Asteartera arte!